

PEDAGOGIA

Maitane MONENTE BERRUEZO

**METODOLOGIA BERRITZAILEAK:
NATURA ETA ANIMALIEKIKO
ELKAR HARREMANA**

**METODOLOGÍAS INNOVADORAS:
INTERACCIÓN CON LA
NATURALEZA Y LOS ANIMALES**

GBL / TFG 2013

upna
Universidad
Pública de Navarra
Nafarroako
Unibertsitate Publikoa

Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

***Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua /
Grado en Maestro de Educación Infantil***

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua
Grado en Maestro en Educación Infantil

Gradu Bukaerako Lana
Trabajo Fin de Grado

METODOLOGIA BERRITZAILEAK:
NATURA ETA ANIMALIEKIKO
ELKAR HARREMANA

METODOLOGÍAS INNOVADORAS:
INTERACCIÓN CON LA NATURALEZA Y
LOS ANIMALES

Maitane MONENTE BERRUEZO

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA
UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

Ikaslea / Estudiante

Maitane MONENTE BERRUEZO

Izenburua / Título

Metodologia berritzaileak: Natura eta animaliekiko elkar harremana / Metodologías innovadoras: Interacción con la naturaleza y los animales.

Gradu / Grado

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Infantil

Ikastegia / Centro

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

Zuzendaria / Director-a

Maria Victoria INSAUSTI NUIN

Saila / Departamento

Pedagogia/ Pedagogía

Ikasturte akademikoa / Curso académico

2012/2013

Seihilekoa / Semestre

Udaberrik / Primavera.

Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapitulu hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Haur Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3854/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3854/2007 Aginduaren arabera, Haur Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktiketan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituen. Azkenik, ECI/3854/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3854/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakus dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Haur Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarritzko prestakuntzako moduluak orokorrean proiektu osoan zehar nabarmentzen dira. Hasieratik amaiera arte, unibertsitateko laur urteetan zehar hezkuntza sistemaren inguruan landutako ezaugarri nabarmenenak aipatzen baitira. Lehenik eta behin hezkuntza sistemaren ibilbide historikoa agertzen da, gaur egungo inklusibitate printzipiora iritsi arte, bigarrenik, bi ikasleen kasuak agertzen dira; testuingurua, hezkuntza premiak eta esku hartzea kontutan harturik. Amaitzeko konklusioetan, proiektuan zehar agerturiko ideiak argudiatzen dira urte hauetan landutako teorien oinarrituz.

Didaktika eta diziplinako moduluak/ak bidea eman digu, lanean zehar aztertzen den metodologia berritzaileen eraginkortasuna ebaluatzerako. Esan beharra dago, lau urte hauetan zehar unitate didaktikoak eta proiektuak irakasgai askotan ikusi eta ikasi ditugula eta horrek lana garatzerako orduan eragina izan duela. Gainera ikasgai hauek lanaren ezaugarri ezberdinak ahalbidetu dituzte, hala nola; ikasle bakoitzaren hezkuntza premiak baloratzerako eta hauei aurre egiteko plangintza osatzerako, haurra inguru natural batean murgildurik eta bere beharrak eta ikaskuntza zailtasunak kontutan harturik, esku hartzea garatzerako eta abar.

Halaber, Practicum moduluak, lan honen amaieran aurkitzen den atal praktikoa eta orokorrean lanaren oinarria aurrera eramatera ahalbidetzen du. Aurtengo praktikum VIa, Zizurreko Erreniega Ikastetxe Publikoan burutu dut eta proiektuaren atal praktikoa, eskolan aurkitzen diren ikasleekin behatutako metodologia berritzaileetan oinarritzen da. Bertan, eskolan aztertutako bi kasu ezberdin planteatzen dira, animalia terapiaren bitartez esku hartzea proposatuz.

Beste alde batetik, ECI/3854/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, hizkuntza honetan idatziko da atal teorikoan agertzen den lehendabiziko atala; *“la inclusión, su origen y significado educativo”*, baita hurrengo atalean aipatzen den laburpen derrigorrezkoa ere.

Laburpena

Lan honetan lehenik eta behin, historian zehar hezkuntza sistemak emandako garapena azaltzen da, XVIII. mendearen amaieratik gaur egun arte. Bertan, hainbat lege aipatzen dira baina horietako bi (LOGSE eta LOE) besteetatik nabarmentzen dira. Geroago proiektua Zizurreko Erreniega Ikastetxe Publikoko ikasle eta irakasleengan bideratzen da. Hezkuntza Premia Bereziak eta ikaskuntza zailtasunak dituzten ikasleekin erabiltzen dituzten metodologia berritzaileei erreferentzia eginez. Honako hau, animalia terapia da eta Sakanako Ibarreko Lakuntza herrialdean dagoen Mendilur elkartearekin lan egiten dute. Metodologia eraberritze honen zergatia eta esku hartzea hobe ulertzeko, eskolako perfil ezberdineko bi ikasleren kasuak atal praktikoan azaltzen dira. Haur bakoitzaren hezkuntza premiak kontutan harturik ikaskuntzaren garapena bermatzeko animalia terapiaren bitartez, esku hartzea edo eta interbentzioa proposatzen da. Amaitzeko haurren garapen integralari begira, aipatzekoa da, programa berritzaile hauek ikaskuntza esanguratsuan sortarazten dituzten abantailak.

Hitz gakoak: Aniztasuna; Inklusioa; Animaliak; Ikaskuntza esanguratsua; Hezkuntza Premia Bereziak. *Hezkuntza eraberritzea*

Resumen

Para comenzar, este trabajo narra la evolución que ha tenido el sistema educativo a través de la historia, desde el siglo XVIII hasta hoy en día. En ella, aparecen las leyes que mayor influencia han tenido en cuanto al sistema educativo, aunque debemos remarcar dos (LOGSE y LOE). A continuación el proyecto se centra en los alumnos y el profesorado del colegio Público Erreniega, en Zizur, donde se hace hincapié en las metodologías alternativas utilizadas con alumnos de Necesidades Educativas Especiales y alumnos con dificultades de aprendizaje. Este método se centra en la terapia con animales, puesto que trabajan con la asociación Mendilur, que se encuentra en Lacunza, un pueblo del valle de la Sakana. Para poder entender mejor la fundamentación y la intervención de este tipo de metodologías innovadoras, en la parte práctica del trabajo se han recogido dos ejemplos de alumnos con perfiles distintos, donde se han tenido en cuenta las Necesidades Educativas de cada alumno.

Por ello, para impulsar el aprendizaje, se plantea una intervención educativa a través de la terapia con animales. Para finalizar, queremos remarcar las ventajas de aprendizaje significativo que tienen este tipo de programas en el desarrollo integral del niño.

Palabras clave: Diversidad; Inclusión; Animales; Aprendizaje significativo; Necesidades Educativas Especiales.

Abstract

First of all, this work relates the evolution that the educational system has had throughout the history, since the late 18th century till now. In it we can find the laws that have had a high influence respect to the educational system, although we should highlight two of them (LOGSE and LOE). After this the project is focused on the staff and the students of Erreniega School, which we can find in Zizur. In this case the emphasis is placed on the innovative methodologies used for pupils with special educational needs and learning difficulties. This method is focused on pet therapy, because they work with Mendilur association, which we can find in Lacunza, a village of the Sakana valley. To gain a better understanding of the foundation and the intervention with this type of innovation methodologies, in the area of specialization we can find two examples of students with different profiles, in which we have had in consideration the educational needs of each one. Therefore to promote the learning, we propose an intervention through pet therapy. Finally, we would like to highlight the advantages of the significant learning in this type of programs, for the integral development of the child.

Keywords: Diversity; Inclusion; Animals; Significant learning; Special Educational Needs.

AURKIBIDEA

SARRERA	1
1. Aurrekariak eta helburuak	3
2. Marko teorikoa. Inklusioa eta metodologia berritzaileak	6
2.1. La inclusión, su origen y significado educativo	6
2.2. Animalia terapiaren sorrera	14
2.2.1. Espainia mailan animalia terapian lan egiten duten elkarteak	16
3. Mendilur elkarteak	19
3.1. Sorrera	19
3.2. Ze nolako ekintzak burutzen dituzte bertan?	19
3.3. Esku hartze arloak	22
3.4. Erreniega Ikastetxe Publikoaren proiektua	23
3.4.1. Proiektuaren konpetentziak	24
3.4.2. Proiektuaren egitura eta partaideak.	25
3.4.3. Metodologia	26
3.4.4. Ebaluazioa	27
4. Mendilur lagun taldea	28
4.1. Dow sindromea	30
4.1.1. Definizioa, hautematea eta ezaugarriak	30
4.1.2. Diagnostikoa eta esku hartzea.	31
4.1.3. Kasua: Down sindromea	32
4.2. Jokabide erasotzailea inpultsibitatearekin	38
4.2.1. Definizioa eta ezaugarriak	38
4.2.2. Esku hartzea	39
4.2.3. Kasua: Jokabide erasotzailea inpultsibitatearekin	40
ONDORIOAK	47
ERREFERENTZIAK	54
ERANSKINAK	56
A. Eranskin I	57
A. Eranskin II	59
A. Eranskin III	60
A. Eranskin IV	62
A. Eranskin V	64

SARRERA

Gradu amaierako lan honen xedea metodologia berritzaileen ezagutza, eskolako baliabide gisa zabaltzea da, animalia terapian oinarrituz. Haur Hezkuntzako Irakasle Graduko azken urte honetan, praktikum VIa Zizurreko Erreniega Ikastetxean burutu nuen eta bertan honako metodologia ezagutzeko aukera izan nuen. Honen ondorioz, baliabide honen inguruan informazio eta ezagutza esanguratsuagoak lortzeko helburuarekin hurrengo lan hau garatu dut.

Hasteko, aniztasun eta inklusio printzipioak kontutan harturik, hezkuntza sistemak XVIII. Mendeko amaieratik gaur egun arte emandako garapenean zentratu naiz, hezkuntzan eragina izan duten legeak edo eta gertakizunak kontutan harturik. Bigarrenik animalia terapiaren sorrera garatu dut, historian zehar emandako garapena azalduz. Harira lotuta, Espainian zehar dauden elkarteak aztertu ditut eta Nafarroan erregistratuak dauden elkarteak aipatu ditut, bakoitzaren xedea azalduz. Honako hauek dira Nafarroako elkarteak; *Mendilur* Elkartea, *El Molino* Hezkuntza Bereziko Ikastetxea eta *Dame la patita* elkartea.

Hirugarrenik Erreniega Ikastetxeak Mendilur elkartearekin elkar harremanean lan egiten zuenez, elkarte honetan zentratu naiz metodologia berritzaile hauen inguruan informazioa garatzeko. Modu honetan, hirugarren puntuan Mendilur elkartearen helburuak, funtzioak, ikasleekin burutzen dituzten ekintzak edo eta esku hartze arloak azaldu ditut. Honen barnean Erreniega Ikastetxeak, perfil ezberdineko ikasleekin burututako proiektua azaldu dut, zenbait puntu kontutan harturik; proiektuaren kompetentziak, helburu orokorrak, partaideak, metodologia eta ebaluazioa besteak beste.

Laugarrenik eskolako perfil ezberdineko bi ikasleren kasuak eta ikaskuntza prozesuak azaldu ditut; alde batetik Down sindromea duen ikaslearen prozesua eta bestetik, jokabide erasotzailea duen ikaslearena. Bi kasu hauek aztertzerako orduan, lehenik eta behin ikasleek daukaten nahastean zentratu naiz eta honako puntu hauek garatu ditut: zer da, definizioa, ezaugarriak, diagnostikoa eta esku-hartzea. Bigarrenik ikasleen kasu pertsonaletara jo dut eta bertan hiru puntu ezberdin kontutan hartu ditut; alde batetik ikaslearen testuingurua bai etxean eta baita eskolan ere, bestetik ikaslearen hezkuntza

premiak eta azkenik, animalia terapiaren bitartez burutuko genukeen hezkuntza erantzuna, eskolan aurrera eramaten den hezkuntza prozesuan duen eraginarekin batera.

Bosgarren puntuan, ondorioak edo eta konklusioak ditugu. Horretarako alde batetik, teoria eta praktikaren alderaketan oinarritu naiz eta bestetik, animalia terapiarekiko nik izan dudana esperientziaren hausnarketa. Bukatzeko seigarren puntuan, gradu amaierako lan honetan zehar erabilitako erreferentzi bibliografikoak aipatzen dira eta bestetik, kontsultatutako bibliografia eta web orrialdeak ere.

Jarraian lanari amaiera emateko anexoak ditugu. Bertan pedagogia terapeutikoko irakasleari zein ikasleen gurasoei burututako galdetegia agertzen da. Honetaz aparte, Erreniega Ikastetxeak Mendilur elkartean izandako esperientziaren inguruan egunkarian argitaratutako albistea daukagu.

1. AURREKARIAK ETA HELBURUAK

Hasteko praktikumean izandako esperientziei dagokienez aipatzekoa da, unibertsitateko lau urte hauetan zehar eskola ezberdinetan egoteko aukera izan dugula, teoria eta praktika aldi berean alderatzeko aukerarekin batera. Hortaz, gaur egungo hezkuntza sistemaren errealitatea ikuspegi hurbilenetik aztertzeko posibilitatea izan dugu. Praktikum hauetan zehar, adin ezberdinetako ikasleekin eta irakasle ezberdinekin metodologia edo baliabide anitzak behatu eta manipulatu ditugu, etorkizunean irakasle bezala lan egitekorako orduan, aurrera eramango dugun metodologia propio baten oinarriari hasiera emanez.

Harira lotuta azken praktikak, Zizurreko Erreniega Ikastetxean egin nituen lau urteko hemezortzi ikasleekin batera. Bertan ikasteko zailtasunak (praxian edo ahoskapenean, kalkulu logiko matematikoetan eta abar) zituzten ikasleak zeuden eta logopedarekin edo laguntzako irakaslearekin astean zehar ordu bat ateratzen ziren jarduera ezberdinak burutzera. Bestalde perfil bereziko ikasle bat zegoen eta bere mailako helburuak kontutan harturik irakaslearen arabera, urte bateko atzerapena zeraman gutxi gora behera. Hala eta guztiz ere, diagnostiko zehatz bat aurrera ateratzeko, ikaslea oraindik oso gaztea da.

Kasu hauetaz aparte, ikastetxe honetan perfil ezberdineko ikasleak daude, Lehen Hezkuntzako mailetan zehar adibidez; Down sindromea duten hiru ikasle, jokabide erasotzailea duten bi ikasle, ikasteko aparteko zailtasunak, AFNH-rekin duen ikasle bat eta gurpildun aulkian aurkitzen den beste ikasle bat.

Ikasle hauek eguneroko bizitzan aurre egin behar dieten egoera ezberdinetara hobe egokitzeke, eskolan, metodologia eta baliabide ezberdinak jarri zituzten martxan. Hala ere, baliabide hauekiko adierazten zuten interesa eta motibazio falta ikusita metodologia berritzaileetara jotzea erabaki zuten.

Hortaz, 2010. Urtean Nafarroako Sakana Ibarrera jo zuten, Lakuntza herrialdera hain zuzen ere. Bertan Mendilur elkartearekin kontaktuan jarri ziren, animaliekin burutzen zituzten terapiak ezagutzeko eta ongi pasatzeko helburuarekin. Hortik aurrera, ikasleen interesa eta motibazioari begira izandako arrakasta ikusita, proiektu bat martxan jartzea erabaki zuten. Unibertsitatean, terapia edo metodo berritzaile hauen inguruan ez dugu ezer ikusi eta praktiketan zehar metodologia hauetan murgiltzeko aukera izan dudanez, honen inguruan informazio gehiago eskuratzea beharrezkoa iruditu zitzaidan.

Metodologia berritzaileak: Natura eta animaliekiko elkar harremana / Metodologías innovadoras: Interacción con la naturaleza y los animales

Ondorioz, gradu amaierako lanean metodologia berritzaileak oinarritzat hartu nituen, animalia terapian zentratuz.

Metodologia honi esker, ikaslea eguneroko testuingurutik at dagoen beste inguru batean integratzen ari gara, bere ezagutzak zabalduz eta inguru natural baten bitartez, ikasteko nahia, gogoia, motibazioa edo eta interesa piztuz. Ezaugarri hauek ikaslearen ikaskuntza prozesuan eragin handia daukate eta pedagogia terapeutikoko irakaslearen arabera, denborarekin eskolan emandako aurrerapausoak esanguratsuak izan dira. Hortaz, honako lan honetan animalia terapiaren baliabidea oinarritzat hartzea erabaki nuen, metodologia alternatibo honi, ahalik eta etekin handiena ateratzeko asmoz.

Gainera esan beharra dago, Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasle askorekin horrelako animalia terapiak askotan erabiliak izan direla. Geroago ikusiko dugun moduan, Iruñean bertan "El Molino" Hezkuntza Bereziako Ikastetxeko zenbait ikasleek adibidez, astean zehar ordu batzuetan zaldiekin elkar harremanatzen dira, jarduera ezberdinen bitartez. Naturarekiko kontaktuarekin batera, ikasleek konfiantza eta segurtasuna garatzen dute eta lagunekin elkartzerakoan esperientziak konpartitzeko aukera daukate. Beraz egoera hauek, gaitasun linguistiko berbal zein ez berbalak garatzera ahalbidetzen die.

Bestalde hasieran esan bezala, lan honen xedea metodologia berritzaileak aztertzea da, animalia terapian oinarrituz. Askotan eskolan baliabide anitzak erabiltzen dira baina etekin gutxi ateratzen zaie, ondorioz honako metodologia alternatiboak ikaslearen ikaskuntza prozesuan oso esanguratsuak eta positiboak izan daitezkeela aztertu nahi dut. Horretarako atal praktikoan bi kasu ezberdin aztertuko ditut eta metodologia honetaz baliatuz, esku hartzea proposatuko dut.

Amaitzeko aipatzekoa da, metodologia berritzaile hauen inguruan unibertsitateko lau urte hauetan zehar ez dugula ezer aztertu eta irakaslearen formakuntzan garrantzitsuak diren baliabideak direla uste dut. Egia da, Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleak pedagogia terapeutikoko irakaslearekin astean zehar ordu asko ematen dituztela, baina irakasle bezala inklusibitatearen eta aniztasunaren printzipioak bultzatzen baditugu ikasleak gela barruan parte hartzea eta jarrera aktiboak izatera bultzatu behar ditugu. Horrenbestez, metodo hauek oso lagungarriak izan daitezke.

Halatan, aurretik aipaturiko guztia kontutan harturik, lan honen bitartez metodologia berritzaile honen inguruan nire ezagutzak garatzea eta zabaltzea gustatuko litzaidake. Bestetik lan honen helburua zera da; bai Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleei eta baita ikaskuntza zailtasunak dituztenei ere, ohiko testuinguruez baliatuz, gaitasunak eta garapen integrala bultzatzeko aukera ezberdinak eskaintzea. Beraz, gradu bukaerako lan honetan, inguru naturaletan bermatzen den ikaskuntza prozesuaren inguruan hausnartzea gustatuko litzaidake, abantailak eta desabantailak aztertuz.

Bukatzeko esan beharra dago, horrelako prozesuak ez direla egun batetik bestera ematen eta denbora behar dela ikaslearen garapen prozesuan aurrerapenak ikusteko. Baina aldi berean horrelako prozesuak pena merezi du, ikasleak pozik eta motibaturik ikasten dutelako. Gainera pertsona bakoitzaren erritmoak errespetatzen dira, hezkuntza premiak kontutan harturik. Beraz, baliabide hauen bitartez inklusibitatea sustatzen da, animaliekiko elkar harremanaren bidez pertsonak dituzten zailtasunei edo eta mugei aurre eginez.

2. MARKO TEORIKOA. INKLUSIOA ETA METODOLOGIA BERRITZAILEAK

2.1. La inclusión, su origen y significado educativo

Podemos ver que a finales del siglo XVIII se ponía fin al antiguo régimen, de origen estamental y clasista, y comenzaba un proyecto de modernidad que afectó a diferentes ámbitos de la sociedad entre los que se encontraba la educación. De este modo nació el sistema educativo liberal, que propició diversos avances hacia la escolarización de los ciudadanos, y que también favoreció la reproducción de la estructura social existente en aquella época, dividida entre la burguesía y el proletariado. Por lo tanto podemos ver que el sistema educativo se dividió en dos partes; por un lado las clases bajas, que recibían una educación primaria funcional, es decir, orientada a la adquisición de un determinado oficio, y por otro, los burgueses, que eran los únicos que aspiraban a llegar a la universidad.

En el Estado español, este primer paso hacia un sistema educativo se dio con la constitución de Cádiz en 1812 y la Ley Moyano de 1857. En aquella época la educación tenía una gran influencia de la iglesia, y a las personas con discapacidad, se les trataba como seres no educables. Por lo tanto, ni siquiera hubo un planteamiento para poder ayudar a estas personas en los ámbitos de desarrollo.

A finales del siglo XIX, se inicia el movimiento de la Escuela Nueva y con él, comienzan a darse los primeros pasos hacia una educación centrada en la actuación individualizada y en la acción socializada. Como dice del Pozo; la enseñanza se realizaba en una atmósfera familiar, de manera que la escuela pretendía llegar a ser como un hogar para el niño, donde el aprendizaje se basaba en la práctica y en el estudio del entorno natural. Por otra parte, el currículum y la distribución del tiempo también formaban parte de esta metodología innovadora; por la mañana dedicaban 5 horas al trabajo intelectual, en cambio, por la tarde realizaban trabajos manuales de jardinería o en el taller de carpintería. Los maestros se comportaban como si fueran sus hermanos mayores, impulsando una atmósfera agradable y de confianza (del Pozo, 2011: 173). Los principales propulsores de este movimiento fueron; Rousseau, Fröebel, Pestalozzi y Comenio, quienes a través de esta corriente defendieron los principios pedagógicos que sustituyeron a los de la “Escuela Tradicional”, como por ejemplo:

- Se tiene en cuenta al niño en todos los ámbitos o aspectos a desarrollar, no solo en el aspecto inteligente.
- Se respeta el ritmo de aprendizaje de cada individuo.
- Se defiende una enseñanza basada en el interés espontáneo del niño.
- Se impulsaron los trabajos cooperativos.

Más tarde en 1899 María Montessori, creó en Italia la *Schola Magistrate Ortofrénica*. En ella, recogía a los niños que los maestros consideraban in-educables a causa de su deficiencia mental. Defendió una metodología basada en el purocentrismo, es decir, todo gira en torno a las características del niño, respetando el ritmo de aprendizaje de cada uno. Y con ello, el material es uno de los aspectos más importantes de su método. A través de él, los niños deben de tener la posibilidad de ser sus propios maestros. Dentro de este movimiento, junto con María Montessori hubo otros autores que defendieron las características de la Escuela Nueva y que incluso propiciaron diferentes recursos o metodologías como; el texto libre o la imprenta de Freinet, los centros de interés fomentados por Decroly, el museo didáctico o el cesto de los tesoros propulsados por Rosa y Carolina Agazzi.

En 1975, N. Bank Mikkelsen, Director del Servicio Danés para el Retraso Mental, plantea un nuevo principio al que denomina normalización; que se refiere a la posibilidad de que los deficientes mentales lleven una existencia tan próxima a lo normal como sea posible. Posteriormente, en la segunda mitad del siglo XX el principio de la normalización comienza a tener una importante presencia sobre la intervención con personas con discapacidad, acontecimiento que podemos considerar como precursor del "Informe Warnock" de 1978 (Reino Unido). En él, se introduce por primera vez el término Necesidades Educativas Especiales, ligado al concepto de integración. Este nuevo principio, hace referencia a la forma de vivir de las personas en la sociedad, afirmando que una persona estará integrada en la sociedad siempre y cuando participe activamente en ella. Por otra parte, teniendo en cuenta los avances educativos, los alumnos con NEE serán considerados como alumnos con dificultades de aprendizaje, teniendo que recibir las ayudas necesarias para su desarrollo e intervención.

En lo que a España se refiere, podemos ver que los últimos años de dictadura franquista, concretamente en el año 1970, con la Ley General de Educación (LGE), se propagaron los primeros avances respecto a la integración social. Aun así, no fue hasta bien pasada la muerte de Franco cuando se consolidó la idea de integrar en nuestro sistema educativo a todas las personas, independientemente de sus diferencias particulares, sociales o culturales. Por ello en el año 1982, la Ley de Integración Social de los Minusválidos (LISMI), fue un hito decisivo en cuanto a los contextos educativos, ya que pretendió impulsar y fomentar la integración laboral de personas con algún tipo de discapacidad. Gracias a esta ley, surgieron principios básicos de atención a las personas con discapacidad como por ejemplo; principios de normalización, sectorización e individualización. Por otra parte, se empiezan a diferenciar términos o conceptos como deficiencia, discapacidad y minusvalía.

Tres años más tarde, en 1985, entró en vigor un Real Decreto de Ordenación de la Educación Especial, que tiene como punto de partida los principios de la LISMI. En él, se establecen un conjunto de medidas para que la integración de las personas con problemas psíquicos, físicos y sensoriales se lleve a cabo de manera efectiva. Además define la educación social como parte integrante del sistema educativo, concretando su definición como un conjunto de recursos, apoyos y adaptaciones que ayuden a hacer efectiva la integración de estos alumnos.

Poco después en 1990, la Ley de Ordenación General del Sistema Educativo (LOGSE) avanzó positivamente hacia una educación cualitativa, prestando mayor atención a los alumnos que se encontraban en situación de desventaja o que sufrían algún tipo de discriminación social. De esta manera, en el preámbulo podemos ver que *“La educación permite, en fin, avanzar en la lucha contra la discriminación y la desigualdad, sean éstas por razón de nacimiento, raza, sexo, religión u opinión, tengan un origen familiar o social, se arrastren tradicionalmente o aparezcan continuamente con la dinámica de la sociedad”* (LOGSE, 1990: Preámbulo). Por lo tanto, con esta ley se ponen en marcha una serie de respuestas educativas para poder hacer frente a la diversidad, ofreciendo así una enseñanza normalizada y de calidad.

A modo de conclusión, la LOGSE fue una Ley clave para poder avanzar hacia una escuela comprensiva e integradora. Como cita dentro del capítulo de la Educación

Especial; *“El sistema educativo dispondrá de los recursos necesarios para que los alumnos con necesidades educativas especiales, temporales o permanente, puedan alcanzar dentro del mismo sistema los objetivos establecidos con carácter general para todos”* (LOGSE, Cap. V, art.36). Por lo tanto, las ayudas pedagógicas que los alumnos precisan, comprometen al profesorado y a los servicios de apoyo a intentar lograr que cada alumno reciba una atención adecuada a sus necesidades educativas, adaptando los métodos y recursos que sean convenientes.

En el año 2006 entró en vigor la Ley Orgánica de Educación (LOE), que continúa vigente en la actualidad. En términos generales, no fue una ley que contrajo grandes cambios estructurales respecto a la LOGSE. Cabe destacar que introdujo ciertos cambios terminológicos, ya que sustituyó el término integración por el de inclusión, así como la supresión del Educación Especial, utilizando otros conceptos más adecuados como por ejemplo, equidad en educación. Por otra parte, dejó de lado el concepto Necesidades Educativas Especiales, para darle paso a la Necesidad Específica de Apoyo Educativo.

Por lo tanto, trata de intentar mantener el equilibrio entre los principios de inclusión, equidad y normalización, adaptando el material y los recursos que sean necesarios para favorecer el aprendizaje de estos alumnos. Así mismo, cita en el artículo 74; *“La escolarización del alumnado que presenta necesidades educativas especiales, se regirá por principios de normalización [...] pudiendo introducirse medidas de flexibilización de las distintas etapas educativas, cuando se considere necesario”* (LOGSE, Cap.I, art.74). Por otro lado, en el punto 3 del artículo 72, la ley hace referencia a la organización escolar, impulsando las adaptaciones y diversificaciones curriculares precisas para facilitar el aprendizaje de los alumnos con dificultades. De este modo, según en el punto 3 del artículo 71 este tipo de adaptaciones se iniciarán, *“[...] desde el mismo momento en que dicha necesidad sea identificada [...]”* (LOGSE, art.71). Con todo ello, podemos ver que se trata de otro ejemplo más de las diferencias terminológicas de las que hablábamos anteriormente.

A continuación, en el siguiente cuadro se exponen las diferencias existentes entre las dos leyes (LOGSE y LOE):

Tabla 1. Comparativa de la Educación Especial en la LOGSE y en la LOE

LOGSE	LOE
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Los alumnos con necesidades educativas especiales dispondrán de los medios necesarios para alcanzar los objetivos establecidos con carácter general para todos. (Cap. V, Compensación de desigualdades en la educación). ▪ El alumnado con estas características debe acudir a un centro de Educación Especial, si sus necesidades no se pueden atender en un centro ordinario. ▪ “La atención al alumnado con necesidades educativas especiales se regirá por los principios de normalización y de integración escolar”. (Cap V, art. 36). ▪ Artículo 2.3. La actividad educativa se desarrollará atendiendo a los siguientes principios: <ul style="list-style-type: none"> a) “La formación personalizada, que propicie una educación integral en conocimientos. Destrezas y valores morales de los alumnos en todos los ámbitos de la vida, personal, familiar, social y profesional.” b) “La efectiva igualdad de derechos entre los sexos, el rechazo a todo tipo de discriminación y el respeto a todas las culturas.” 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ El término Necesidades Educativas Especiales, es sustituido por alumnado con Necesidad Especifica de Apoyo Educativo. (Cap. I Equidad en la Educación). ▪ El alumnado con estas características puede recibir la atención necesaria dentro de un centro ordinario. ▪ “La flexibilidad para adecuar la educación a la diversidad de aptitudes, intereses, expectativas y necesidades del alumnado, así como a los cambios que experimenta el alumno en la sociedad”. (Cap.I, Art. 1). ▪ Introducción del término <i>inclusión</i>, es decir una Educación basada en la Diversidad. ▪ Señala que aportarán los medios necesarios para un desarrollo personal, intelectual, social y emocional; además de los objetivos comunes para todos. ▪ Capítulo I, primer artículo. Los principios y fines de la educación, propone como principio básico: <ul style="list-style-type: none"> b) “La equidad, que garantice la igualdad de oportunidades, la inclusión educativa y la no discriminación y actúe como elemento compensador de las desigualdades personales, culturales, económicas y sociales, con especial atención a las que deriven de discapacidad.”

Desde una perspectiva inclusiva, la sociedad, según Oliver y Barnes, es *“una sociedad en la que todos los seres humanos, con independencia de su capacidad, edad, genero, o estatus racial, étnico o cultural conviven [...] con la convicción de que sus necesidades serán satisfechas y de que sus puntos de vista serán tenidos en cuenta, respetados y valorados”*. (Oliver y Barnes, 1998:102). En la sociedad inclusiva, la atención a la diversidad significa que cada centro educativo sea consciente de su situación, analizando las necesidades educativas del alumnado del centro y de los recursos que puede incorporar y desarrollar, para poder responder de manera efectiva a las demandas planteadas. Uno de los objetivos de la inclusión, defiende que la diversidad debe ser planteada de manera que todos los alumnos consigan los objetivos básicos, sea cual sea su diferencia de partida, centrándose en las diferencias individuales de cada persona.

El Principio de Igualdad de Oportunidades para las Personas con Discapacidad (Naciones Unidas, 1993), así como el informe de la UNESCO (1994) elaborado para promover el objetivo de la educación para todos (Declaración de Salamanca), fueron dos documentos que contribuyeron a subrayar el derecho de todas las personas, a una educación basada en el principio integración e igualdad de oportunidades. Además Jiménez y González señalan que se reconoció *“la necesidad de impartir enseñanza a todos los niños, jóvenes y adultos”* (Jiménez y González, 2011:35) y que el concepto de integración debía *“ampliarse a fin de incluir a todos los niños, sea cual sea el motivo, no se benefician de la enseñanza escolar”* (Ibid, 2011:35). Por lo tanto, se plantean la equidad y la participación activa como requisitos para crear una escuela más eficaz, dejando de lado términos como la exclusión social.

De este modo, la educación inclusiva se centra en reducir la exclusión y fomentar la participación de todas las personas en una sociedad que se adapte a las necesidades de aprendizaje de los alumnos. Su lema sería educación de calidad para todos, priorizando las situaciones de los más perjudicados y los más excluidos asumiendo la diversidad.

Con ello los rasgos fundamentales de una escuela inclusiva entre otros, son:

- Evaluación del contexto educativo.
- Ser un conjunto de principios y valores que deben reflejarse en las prácticas escolares en términos de calidad y eficacia.
- Promover la enseñanza y el trabajo colaborativo en grupos heterogéneos, fomentando la participación activa.
- Flexibilización del tiempo educativo donde se apuesta por la calidad más que por la cantidad.
- Análisis, selección y elaboración de materiales variados centrados en los objetivos del plan curricular y de la diversidad del alumnado.

Así mismo, en este trabajo se defienden los principios inclusivos anteriormente citados, propulsando una metodología innovadora basada en la en el contacto con los animales y la naturaleza. Como hemos comentado en anteriores apartados, en este trabajo se plantean dos casos de niños con diferentes perfiles, en cuanto a sus Necesidades Educativas Especiales. Para ellos, las metodologías planteadas en la escuela para poder atender de forma efectiva sus necesidades eran poco motivadoras e incluso aburridas. Por ello el tutor junto a la pedagoga terapéutica decidió promover diferentes metodologías o recursos para fomentar sus aprendizajes.

De este modo se pusieron en contacto con la asociación Mendilur en el pueblo de Lacunza, Navarra. La cual, trabaja con niños que tienen problemas de aprendizaje, a través del contacto con los animales. En el año 2010 se pusieron en realizaron una excursión con los tres alumnos de Síndrome de down del colegio. Así mismo, redactaron una noticia en el periódico transmitiendo la experiencia vivida con los alumnos. De esta manera resumía la pedagoga terapéutica todo lo vivido; En momentos que no esperábamos, han liberado diferentes tipos de respuestas como por ejemplo el miedo o la valentía. Por ello decidimos cogerlo como centro de interés, para desarrollar aprendizajes significativos y habilidades de todo tipo como la escritura, la lectura, el cálculo etcétera. (Erreniega Ikastetxe Publikoa, 2011: Diario de Noticias). De este modo, a partir del año 2011 se puso en marcha el proyecto que veremos a continuación en el tercer apartado.

La motivación y el aprendizaje son dos procesos fuertemente implicados, hasta el punto en que si falla la motivación, hay mayor riesgo de que fracase el aprendizaje. Por ello, a través de este trabajo vamos a elaborar una intervención impulsando las metodologías innovadoras, que podemos utilizar para hacer frente a estas cuestiones. Como vemos, el profesorado debe de ser capaz de adaptarse al ritmo, a las capacidades y al interés de aprendizaje de cada alumno, variando su forma de enseñanza a través de diferentes recursos. Como citan Navaridas y Jiménez *“Impulsar cambios que consigan mejoras es una constante en los profesionales comprometidos con la educación de calidad”* (Navaridas y Jiménez, 2013: 84).

A modo de conclusión la diversidad, asegura los recursos necesarios para que los alumnos que requieran atención educativa, puedan alcanzar el máximo desarrollo posible de sus capacidades personales, y en todo caso, los objetivos establecidos de carácter general. Por ello teniendo en cuenta el ritmo de aprendizaje de cada alumno, a través de la relación que surge mediante el contacto con los animales, vamos a trabajar el desarrollo de los objetivos y habilidades que se establecen en el colegio. Así mismo, en el cuarto apartado se desarrollan dos casos con niños de distintos perfiles, que defienden este tipo de metodologías innovadoras garantizando mayor efectividad en el desarrollo integral del niño. Además por medio de este recurso, los alumnos tienen mayor participación en clase y sienten que forman parte de un grupo de personas, con motivaciones, intereses u opiniones diferentes.

Para dar comienzo al desarrollo de esta metodología, primero debemos hacer hincapié en la evolución histórica que ha tenido durante estos últimos años, puesto que es un recurso que dio sus primeros pasos en el año 1972 con su fundador, William Tuke.

2.2. Animalia terapiaren sorrera

Animalia terapia, urteetan zehar emandako aurrerapauso eta hobekuntzei esker garatu da eta gaur egun oraindik ere, oso ezaguna ez den metodologia alternatiboa da. 1948. Urtean, New York-en Samuel B. Rossek, Green Chimneys baserria sortu zuen. Jokabide arazoak zituzten ikasleak animaliekin ekintzak burutzeko. Geroago 1867. Urtean, Alemanian, konpainiazko animaliak epileptikoak ziren pertsonen esku hartzean, oinarritzat hartu zituzten. Bestalde, bigarren mundu gerraketik aurrera, Amerikako Estatu Batuetako armadako albaitariak, ospitalean aurkitzen ziren pertsonekin eta hauen familiekin konpainiazko animaliak, txakurrak batik bat erabili zituzten, ongizate soziala hobetzeko helburuarekin.

Denbora pasa ahala 1966. Urtean, Earling Stordahl musikariitsuak Norvegiar ezgaitasun fisikoak zituzten pertsona itsuentzako zentro bat sortu zuen. Kasu honetan txakurrak aparte, zaldiak baita ere parte hartzen zuten, ezgaitasunak zituzten pertsonen ekintza ezberdinak egitera animatuz.

Hala eta guztiz ere 1972. Urtera arte pertsonen eta animalien arteko elkar harremana ez zen terapia gisa hartu. Hortaz William Tuke-ek metodologia alternatibo honetan aurrerapen handiak eman zituen, Ingalaterrako York herrialdean, erretiro bat sortuz. Animalien bitartez ezgaitasun emozionalak zituzten pertsonen, baloreak eta gaitasunak errazago garatu ahalko zituztela pentsatzen baitzuen. Errefortzu positiboaren bitartez, autokontrola garatuz.

Geroago, 1974. Urtean, Samuel eta Elisabeth Corson animalia terapiaren inguruan programa bat martxan jarri zuten eta bideragarritasun txosten baten bitartez, programaren eraginkortasuna ebaluatu zuten. Ohiko tratamenduen bidez erantzun positiboak lortzen ez zituzten pertsonetan, oinarritu zen proiektua. Ikerketan zehar hobekuntza ezberdinak antzeman ziren, hala nola; autoestima eta komunikazioaren indarketa, animalien inguruan burutu beharreko zainketen ardurak eta abar.

Ondoren, 1990. Urtean, ONCE fundazioak txakur gidaria proiektua Boadilla del Monte, Madrilan sortu zuen. Ikusmen ezgaitasunak edo eta itsuak ziren pertsonen zuzendutako zentroa hain zuzen ere. Bertan txakurrak trebatu edo eta hezi egiten zituzten, geroago hauek testuinguru ezberdinetan itsuak ziren pertsonen lagundu ahal izateko.

Jarraian, 1991. Urtean I Biltzar Internazionallean, “Gizakia eta konpainiazko animaliak, osasunarentzako onurak” Laurel Redeferreren proiektuaren emaitzak aurkeztu ziren. Honako ikerketa hau, garapenaren nahaste orokorrak zituzten pertsonekin eta txakurrekin garatu zen. Honako hauek dira aurkeztutako emaitzak:

- Elkarreragin sozialaren garapena.
- Haurrak jolasten ikasi zuten eta pixkanaka animaliarekin elkarreragin konplexuagoak sortzen hasi ziren.
- Animaliarekiko kontaktua eta harremanari esker, hizkuntz ez berbala edo eta berbalarekiko gaitasunak garatzen hasi ziren.

1993. Urtean “Gizakia eta konpainiazko animaliak, osasunarentzako onurak” II Biltzar Internazionala burutu zen. Urte honetan ordea, jokabide arazoak eta hiperaktibitatearekin burututako ikerketaren emaitzak aurkeztu ziren.

- Agresibitatearen murrizketa.
- Interesaren agerpena, arreta mantentzeko gaitasunarekin batera.
- Tratamenduarekin hasi eta sei hilabete beranduago, ikasleengan hobekuntzak antzeman ziren. Adibidez; sintomen murrizketa.

Amaitzeko 1995.urtean Espainian, Tarragonan hain zuzen ere, helduentzako animalien inguruko lehendabiziko terapia programa sortu zen. Ildo beretik lehen esan bezala, gaur egun oraindik ere, ikertzen ari den metodologia alternatiboa da. Hurrengo puntuan ikusiko dugun moduan, gaur egun Espainia osoan animalia terapiaren bitartez lan egiten duten entitate ezberdinak daude, ezgaitasunak dituzten pertsonen garapen integralean oinarritzen direlarik. Entitate hauek animalia ezberdinekin terapiak zuzentzen dituzte, hala nola; izurdeak, baserrietako animaliak, zaldiak, txoriak edo eta itsas lehoiak.

2.2.1. *Espainia mailan animalia terapian lan egiten duten elkarteak*

Espainia osoan zehar 161 entitate erregistratu dira animaliekin terapian aritzen direnak. Terapia hauek, ezgaitasunak dituzten haur nahiz helduekin lan egiteko sortu dira, garapena bizitzako aspektu guztietan orokorrean bermatzeko aukera emanez. Ez hori bakarrik, badira baliabide eta web orrialde ezberdinak animaliekin burutzen den terapia honen inguruan, eta ikasleen garapen integralean sor ditzakeen onuren inguruan mintzatzen direnak.

Entitate bakoitzean animalia ezberdinekin lan egiten dute, hala nola; txakurrekin, zaldiekin, baserriko animaliekin, itsasoko ugaztunekin, txoriekin eta astoekin. Hala eta guztiz ere gehiengoak txakurrekin eta zaldiekin lanak burutzen dituzte. Orokorrean, txakurrekin burutzen diren jarduera gehienak ikusmen urritasuna duten pertsonen zuzenduak daude. Kasu honetan Nafarroako Foru Erkidegoan zentratuko gara eta berez erregistraturik hiru entitate ditugu:

- *Mendilur elkartea.*
- *Dame la patita.*
- *El Molino* Hezkuntza Bereziko Ikastetxea.

Mendilur elkartea web orrialdean aurkezten den moduan, Sakanako Ibarreko Lakuntza herrialdean dagoen elkartea da. Mendilur, Sakana Ibarreko autistei animalien bitartez eguneroko bizitzako behar minimoak asetzeko eta garapena bultzatzeko xedearekin sortu zen. Orduz geroztik, denbora pasa ahala elkartea handitzen joan da eta gaur egun Ibarreko eskola ezberdinekin lanean aritzen dira. Haur kopurua baita ere handitu da eta jadanik ez dira soilik autismoa duten ikasleak joaten, Down sindromea edo eta jokabide erasotzaileak, garun paralisia, hiperaktibitatea eta arreta mantentzeko zailtasunak dituzten ikasleak, hango profesionalekin lanean aritzen dira.

Dame la patita, Iruñerrian dagoen elkartea da. Bertan ezgaitasunak dituzten hurrei laguntzeaz aparte, etxean txakurrak dituzten pertsonen animaliei instrukzioak jarraitzera erakusten diete. Gainera, aipatzekoa da geroago ikusiko dugun El Molino Hezkuntza Bereziko Ikastetxearekin lau urtez lanean eman dutela, bertako ikasleen hezkuntza premiak asetzeko helburua jorratuz. Elkarte honetan batez ere, entzumen

urritasunak dituzten pertsonekin lan egiten dute eta bertako profesionalak web orrialdean zera adierazten du:

“Un perro señal no está entrenado para alertar de sonidos como una bocina o una sirena, pero por medio del lenguaje corporal y el comportamiento, el perro hace entender al usuario cosas que están ocurriendo a su alrededor, por tanto, ganará percepción con respecto a su entorno reaccionando a cualquier cosa a la que reaccione su perro. Cuando el perro se vuelve a mirar aquello que oye, la persona sorda se dará cuenta y se volverá a mirar lo que ocurre también”.

(Millares, 2012: Dame la patita)

Azkenik esan beharra dago, elkarteak animalien inguruan kurtso ezberdinak antolatzen dituela, hala nola; animaliei aginduak betetzen erakusteko, ikusmen urritasuna duten pertsonekin lan egiteko, txakurren agresibitatea murrizteko eta abar.

Hirugarrenik, *El Molino Hezkuntza Bereziko Ikastetxea* dugu, web orrialdean seinalatzen duten moduan, 1978. urtean Iruñerrian ireki zen ikastetxea da. Ikastetxe pribatu-kontzertatua hain zuzen ere. Bertako ikasleek 12 – 21 urte bitartekoak dira eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketak eta ondorengoak burutzeko aukera daukate. Gainera, tailer edo eta ekintza ezberdinak egiteko aukera daukate, hala nola; zeramikarekin, egurrarekin, etxeko egin beharrekin, elektrizitatearekin eta burdinarekin eta abar. Ildo beretik, lau terapia ezberdin proposatzen dizkiete bertako ikasleei; hidroterapia, ekinoterapia, zentzumenen bidezko terapia eta konpainiazko animaliekin eginiko terapia. Oraingo honetan ekinoterapian eta konpainiazko animaliekin buruturiko terapian zentratuko gara.

Lehenik eta behin ekinoterapia edo eta zaldiekin buruturiko terapia daukagu, gaur egun 14 ikaslek astero burutzen dutena. Testuinguru horretan murgilduz, zaldiarengandik ezaugarri ezberdinak lantzeko aukera daukate; bai garapen fisiko, bai garapen intelektual eta baita garapen emozionalari begira. Haurra, zaldiaren gainean dagoenean, animalia ibiltzerakoan hartzen duen erritmo edo eta martxaren arabera, ikaslea estimulatzeko ari da. Gainera, zaldiaren garbiketa eta zainketa lanak, atzerapen mentala duten ikasleentzat oso onuragarriak dira, normalean zainketa horiek jasotzen

dituztenak haiek baitira. Hortaz kasu honetan, zaldiekin edo eta bestelako animaliekin egin beharreko zainketa lanak haiek burutzen dituzte eta esperientzia hau bizitzeko aukera duten ikasleen autoestimuan onura anitzak ekartzen ditu, motibazioa eta interesa piztearekin batera. Zaldien bitartez ingurua esperimentatzeko duten aukerari esker eta haiekin buruturiko ekintzei esker, honako ezaugarri hauek garatzen dituzte ikasleek; egoera fisikoa, komunikazioa eta hizkuntza, gorputzarekiko sortzen duten pertzepzioa, indarra edo inpultsoen auto kontrola eta autoestima.

Hari beretik, aipatzekoa da gaur egun 5 ikasle joan direla ekitaziozko txapelketa nazionalera eta Nafarroako ekitazio edo zaldiketa jolasetara berriz, 40.

Bigarrenik konpainiazko animaliekin egindako terapiari dagokionez, ezaugarri espezifikoak dituen animali batekin eginiko interbentzio kontrolatuan oinarritzen da. Terapia honen bitartez, hauraren egoera emozional, kognitibo eta fisikoa estimulatzean eta sustatzean oinarritzen dira. Ekintza ezberdinen bitartez, ikasleek beste pertsonetikiko duten komunikazioa eta harremana errazten dute. Animaliek guk dugun afektu edo eta auto-estimua egoeraren aurrean jokatzen duten moduari esker, segurtasun emozionala transmititzen diete.

Haien presentziak, ikasleengan motibazioa, interesa, inizatiba, inplikazioa, arreta, kontzentrazioa eta abarreko ezaugarriak sorrarazten dituzte. Ikasleak animaliekin kontaktuan asko inplikatzeko dira, inizatiba propioaren bidezko erantzunak emanez, bat batekoak eta arreta eta kontzentrazio osoarekin.

3. MENDILUR ELKARTEA

3.1. Sorrera

2008ko maiatzean, Nafarroako Lakuntza herrian, Mendilur elkarteak sortu zen. Familia eta boluntarioz osatutako taldea hain zuzen ere. Hasiera batean, Nafarroako Sakana ibarrean zeuden haur autistei, animaliekin egokitutako terapiaren bitartez, beren garapen ebolutiboan laguntzeko sortu zen. Animaliekin egokitutako terapia, ezgaitasunak dituzten haurren osasuna eta ongizatea bultzatzean oinarritzen da, hauekin izandako esku hartze terapeutikoko laguntzari esker. Animaliek dituzten baloreak aprobetxatzen dira, pertsona hauen bizi kalitatea hobetzeko asmoz. Mendilur elkartean arlo fisiko, psikologiko eta sozialetan adituak diren pertsonak lan egiten dute, baita animalien jarreretan adituak direnak ere. Bertako txakurrak alde aurretik behar bereziei erantzuteko heziak daude eta oinarrizko aginduak jarraitzen dituzte. Denborarekin elkarteak zabaltzen joan da eta hiru helburutan oinarritzen da gaur egun:

- Animaliekin egokitutako terapia zerbitzua, beharrezkoa duten pertsona guztiei (ezintasun fisiko edo psikikoak, adingabeak edo helduak) eskaintzea.
- Animaliekin egiten den lana espezializatzea; arlo sozial, fisiko eta emozionalean ahalik eta etekin hoberena ateratzeko.
- Elkartean lan egiten duten kideak, kanpoko jendea beren lanaren inguruan sensibilizatzea. Errespetua irakasteko eta animalia terapiaz baliatzen diren ezgaitasuna duten pertsonen laguntzeko.

3.2. Zer nolako ekintzak burutzen dituzte bertan?

Astean zehar saio bat burutzen da, normalean larunbat arratsaldeetan izaten da, lauetatik aurrera. Saioak 3 – 4 ordukoak izaten dira haurren erritmo eta motibazioaren arabera. Amaieran, elkarteko kideak eta haurrak elkarrekin askaria hartzen dute, ondoren gurasoak etortzen dira etxera joateko. Gurasoak ez dira saioetara gelditzen, hasieran harrera momentuan, bertan gelditu ahal dira baina saio osoan zehar ez da batere gomendagarria, haurrak orokorrean gurasoen aurrean jarrera bat hartzen baitute, jokabide aldaketak haurren arabera izaten dira; gurasoen hanken

artean gelditzen dira, zerbait egiterakoan beren onarpena bilatzen dute, lotsatzen dira eta abar. Gurasoak joaterakoan berriz, jokabide aldaketa ematen da eta askatasun osoz jokatzen dute.

Lehenik eta behin, elkarteko profesionalek burutzen dituzten ekintzei dagokienez, ikaskuntza jarraia daukagu. Ezaugarri hau gaur egungo gizartean ezinbesteko oinarria da, maila sozialean aldaketa azkarrak eta etengabeak ematen direlako. Bestetik ere, elkartea Nafarroan zehar hedatzen hasi zenean, asteburuetan bertaratzen ziren ikasle kopurua baita ere handitu zen eta handitzen doa oraindik ere. Modu honetan, ezgaitasun mota ezberdinekin lan egiteko aukera izan dute. Halaber, ezgaitasun berdinekin aurkitu daitezke baina pertsonaren arabera, erritmo eta garapen ezberdina izango du. Honen ondorioz, bertan lan egiten duten pertsonen formakuntza ezinbestekoa da, saioetan ahalik eta etekin handiena lortu ahal izateko.

Lehen esan bezala, Mendilur elkartea hasiera batean Sakana ibarrean bizi ziren autistekin lan egiteko sortu zen. Baina denbora pasa ahala, elkartea zabaltzen joan zen eta Down Sindromea, hizkuntza atzerapena, garun paralisia eta abarreko hurrekin lanean hasi ziren. Garapenarekin batera, Aspace elkartean murgildu ziren, garun paralisia zuten hurrekin lan eginez.

Bigarrenik aipatzekoa da, bertako profesionalek saioetan parte hartzen duten animaliekin aldeztetik lan egin behar dutela, pautak espezifikoak irakatsiz. Honekin batera, gaur egun artzai txakurren lana eta obediencia erakustaldiak burutzen dituzte. Modu honetan, jaialdiak antolatzen dira elkartearentzat dirua lortzeko helburuarekin.

Azkenik hirugarrenik, elkarteak, animaliekin egokitutako terapiaren inguruan eta urte hauetan izandako esperientzien inguruko hitzaldiak Nafarroa osoan zehar antolatzen ditu. Gainera, esan beharra dago, zonaldeko eskola batzuetara txakurrekin bisitak egiten dituztela, hala nola; Zizurreko Erreniega Ikastetxea. Eskoletara egindako bisita hauetara, elkarteko arduraduna joaten da, Hiru izeneko txakurrekin. Erreniega Ikastetxean adibidez, hilabetean bitan Hiru izeneko txakurra ekartzen dute, ikasleekin patioan egoteko. Normalean ostiral arratsaldetan izaten da eta lehendabiziko saioan Haur Hezkuntzako ikasleak ateratzen dira eta bigarren saioan berriz, Lehen Hezkuntzakoak.

Orokorrean larunbatetan Lakuntza herrialdera hurbiltzen diren ikasleak saio hauetara ateratzen dira eta hauetaz aparte, gelako beste zenbait ikasle. Modu honetan, ezgaitasuna duten ikasleak, beren gelakideen aurrean protagonistak sentitzeko aukera izaten dute; txakurrarekin izandako esperientziak kontatuz, txakurra nola gidatu behar den erakutsiz, nola hitz egin behar diogun eta abar.

Bukatzeko aipatzekoa da, hasiera batean elkartea sortu zenean, Lakuntza herrialdeko biztanleek eta Sakana ibarrean bizi diren pertsonak, horrelako terapiak behar bereziak dituzten ikasleekin egitea, ez zituztela oso ongi ikusten. Horregatik herrian bertan, haurrak alde batera uzten zituzten, arraroak izango balira bezala. Ondorioz, aurretik esan bezala elkarrekin honen helburuetariko bat sentsibilizazioa da, bai herrialderi dagokionez eta baita egungo gizarteari dagokionez.

Gaur egun aldiz, elkarrekin garapenarekin batera egoera aldatu da eta herriko jendea oso integratua dago bertan. Zenbaitetan, herrialdeko biztanleak larunbat arratsaldetan askariko orduan hurrekin egotera bertaratzen dira. Honen ondorioz bertako langileek animalia terapia kontzeptua aldatzea planteatu dute. Azkenean, gaur egungo gizartearen "terapia" hitza gaixotasun edo etiketa batekin elkarlotzen da eta horrelako ikuspegiarekin ez du inolako zerikusirik. Lakuntzara hurbiltzen diren pertsonak, animaliekin sortzen duten harremanari edo loturari esker, garapen integralean hobekuntzak nabaritzen dituzte eta helburu horretan oinarritu behar gara, horrelako elkarrekin baten inguruan mintzatzerakoan.

Bestetik ere, aurreko paragrafoetan esan bezala, hilabeteetan bitan Hiru izeneko txakurra Mendilur elkarteko arduradunarekin Erreniega Ikastetxera etortzen dira, behar bereziak dituzten ikasleekin eta eskolako edozein ikaslerekin egotera. Honen ondorioz, eta "terapia" hitzarekin burututako hausnarketan ondorioz, elkarrekin erreferentzia egiteko, "lagun taldea" deitzea erabaki dute. Azkenean, larunbatetan bertan elkartzen den jendea boluntario lanak egiten ditu eta behar bereziak dituzten pertsonen laguntzera eta haiekin ongi pasatzera joaten dira.

3.3. Esku hartze arloak

Animaliekin egokitutako terapia, gizakion garapeneko arlo ezberdinetan onurak sortu ahal ditu, hala nola:

- *Arlo fisikoan:* Tonu muskularra hobetzen da, gaitasun motoreak handitzen baititu. Bestetik ere, ikasleen autoestima eta motibazioa hobetzen baldinba dira, botika eta mediku mendekotasuna gutxituko dira; depresioak, tristurak eta abarreko emozio edo sentimenduak murrizten baitira.
- *Arlo sozialean:* Harreman sozialak errazten ditu, lagunartekotasun sentimenduak sortuz. Saio hauetan zehar animalien lagunak bilakatzen dira eta hauekin nola jokatu behar den ikasten dute. Guzti horrek, geroago eguneroko bizitzan adiskidetasun berriak sortzeko eragina izaten du.
- *Arlo psikologikoan:* Antsietatea eta ondoeza murrizten dira ikaslearen gogo aldarrearekin batera. Laguntza sozial eta osasun pertzepzioa hobetzen doa, animaliekin aplikatzen dituzten estrategia eta teknikak geroago, beren eguneroko bizitzan aplikatzera jotzen dutelako.
- *Arlo kognitiboan:* Kontzentrazio, arreta eta memoria gaitasunak handitzen ditu. Saioetan zehar hurrei ekintza ezberdinak burutzea eskatzen diete, batzuk besteak baino zehaztasun gehiagorekin egin behar dira. Adibidez; ardiak jetzi behar badituzte, arreta eta kontzentrazioa lantzen ari dira.
- *Arlo emozionala:* Arlo honetan, hurrek animaliekiko enpatia garatzen dute eta autoestimaren igoerarekin batera, portaera transtornoak gutxituko dituzte. Emozioak adierazteko gaitasunak hobetuz.
- *Hezkuntza arloan:* Ikasteko motibazioa handitzen da, arreta zentratzeko eta kontzentratzeko gaitasunekin batera. Bestetik ere, ikasleak beren jokabideak auto-kontrolatzeko gaitasunak garatzen dituzte, modu honetan antsietatea murrizten dute.

3.4. Erreniega Ikastetxe Publikoaren proiektua

Erreniega Ikastetxea Zizurko eskualdean dagoen eskola arrunta da, D eredu defenatzen duena. Momentu honetan, eskolan aurkitzen diren haurren artean ezgaitasuna duten ikasleen perfilak nahiko esanguratsuak dira; Haur Hezkuntzan garun paralisia duen ikasle bat dago eta Lehen Hezkuntzan berriz, Down Sindromea duten hiru ikasle daude, agresibitatea – inpulsibitatea duten bi ikasle eta abar.

Hasiera batean ezgaitasunak dituzten ikasleekin lan egiteko, metodologia ezberdinak abiapuntutzat hartu zituzten, beren interesa eta motibazioa indartzeko asmoz. Izan ere, metodologia gehienekin egoera berdinean amaitzen zuten, ikasleen aldetik ez baitzuten inolako motibazio edo interesik lortzen eta erraz aspertzen zirelako. Egoera hauek ikusita, beste alternatiba batzuk bilatzera jo zuten. Honen ondorioz 2010. Urtean Erreniega Ikastetxea, Mendilur elkartearekin harremanetan jarri zen, Down sindromea duten hiru ikasleekin Lakuntzara ateraldi bat antolatzea posible litzatekeen proposatuz. Helburua, bertako animaliak ezagutzea eta haiekin kontaktuan jartzerakoan ikasleen jarrerak behatzea zen.

Mendilur elkarteko arduradunari ideia polita iruditu zitzaion eta urriaren 7an Lakuntzara abiatu ziren. Ateraldira, pedagogia terapeutikoko bi irakasleak eta entzumen eta hizkuntzako irakasle bat joan ziren, Down Sindromea duten hiru ikasleekin batera. Goiza hiru txakur ezberdinekin pasatu zuten; Mendi, Milka eta Hiru. Eguna aurrera zihoan bitartean, ikasleengandik espero ez zituzten erreakzioak behatzeko aukera izan zuten egunkariko albiste batean plazaratzea erabaki zuten. (Ikus eransk. 1).

Egunak pasa ondoren, ateraldiko ebaluaketa egiterakoan, ikasleen aldetik izandako onarpena eta interesa kontutan harturik, terapia alternatibo hauek interesguneztat hartzea erabaki zuten, ikasketa esanguratsuak eta arlo guztietako gaitasunak (irakurketa, idazketa, zenbakikuntza eta abar) garatzeko asmoz. Modu honetan, ikastetxeak animalien terapiaren inguruan proiektu bat martxan jarri zuen, eskolan ikaskuntza zailtasunak zituzten perfileko ikasleekin lan egiteko. Proiektu honen bitartez, Down Sindromea duten ikasleen motibazioa indartu nahi da, irakurketa eta idazketa prozesuen garapena sustatuz. Bestetik ere martxan jarriko den proiektuaren

bitartez, agresibitatea eta inpuitsibitatea duen ikasleari bere indarra eta barne emozioak kontrolatzera lagundu nahi zaio baita ere.

Horrenbestez, ikasle hauei beren gelako parte aktiboak izateko aukera ahalbidetuko zaie, bakoitza ideia berrien edo eta esperientzia berrien eramailea izango direlarik. Gainera egoera horrek, protagonistak sentiaraztera lagunduko die, gelako talde irudia sortuz eta partaidetza aktiboa sustatuz. Honekin batera aipatzekoa da, terapia alternatibo hauen bitartez, eskolako ekintza batzuk zabaldu direla eta horrek zentroko beste ikasle bati, Haur Hezkuntzako etapan garun paralisiarekin aurkitzen den beste ikasle bati hain zuzen ere, esperientzia berri hau bizitzeko aukera eman diola. Azken ikasle honek, ez du besteen helburua jarraitzen, kasu honetan maila curriculumarean, auto-estimuan eta harreman sozialetan zentratu baitira eta orain arte lortutako emaitzak ezin hobetoagoak izan dira.

Laburbilduz, proiektu honen helburua zentro ordinario batetan terapia eta metodologia berritzaileak sustatzea da, ezgaitasun espezifikokoak dituzten ikasleengan bideratuz. Ikastetxeak gaur egun dituen ikasleen perfilak kontutan harturik (Down Syndrome, garun paralisia eta agresibitatea inpuitsibitatearekin) proiektua modu batean edo bestean bideratuko da. Aipatzekoa da ere, lan honen bitartez ez dela soilik ikasle hauenganako abantaila edo benefizioa bilatzen, beren gelakideekiko onura baita ere bilatzen delako, ikasleak kontaktzen dituzten esperientzien eta ikaskuntza berrien hartzaileak bilakatzen baitira.

3.4.1. Proiektuaren kompetentziak:

Proiektu honen bitartez, eskolan lantzen diren kompetentzia ezberdinak sustatzen dira, zuzeneko edo eta zeharkako eran. Esan bezala, lantzen diren kompetentziak honako hauek dira:

- Komunikazio linguistikoko kompetentziak.
- Kompetentzia matematikoak.
- Mundu fisikoarekiko harremana eta ezagutzarekiko kompetentziak.
- Informazioaren trataera eta kompetentzia digitalak.
- Kompetentzia sozialak eta hiritartasunekoak.

- Konpetentzia kultural eta artistikoak.
- Ikasten ikasteko konpetentziak.
- Konpetentzia emozionalak.
- Autonomia eta inizatiba pertsonala.

3.4.2. *Proiektuaren helburu orokorrak:*

Proiektu honen helbururik nagusia ezgaitasuna duten ikasleek irakurketa – idazketa prozesuak barneratzean datza. Helburu honetara iristeko, prozesu batean murgilduko dira eta honek aukera ezberdinak ahalbidetuko dizkie, aldi berean, helburu orokorrako batzuk landu eta lortu ahal izateko. Hona hemen landu daitezkeen helburu orokorrak:

- Ezgaitasun espezifikokoak dituzten ikasleei hezkuntza erantzun egokia eskaintzea, hezkuntza prozesua bermatuz. Erantzun honek aspektu curricularrekin eta behar afektibo eta pertsonalekin zerikusia duten beharrak kontutan hartzen dituelarik.
- Ekintza sozialetan ikasleen parte hartzea sustatu, garapen pertsonalean bizi duten ezgaitasun egoeratik, beren burua mugaturik ikus ez dezaten. Modu honetan ikasleen garapen integrala lortu nahi da, bakoitzaren nortasunaren aukerak eta erritmoa kontutan harturik.
- Behar bereziak dituzten ikasleen ekintzak egokituko dira; motrizitatea, garapen maila, interesak eta abar kontutan harturik.
- Ikasleen garapen kultural eta artistikoa bultzatzea. Beren nortasunaren ezaugarriak eta ahalbideak kontutan harturik.
- Behar bereziak dituzten ikasleen Curriculumeko jarduerak aberastea, ikasleen ezgaitasunak integrazio sozial eta hezkuntza inklusiorako oztopoa izan ez daitezen.
- Behar bereziak dituzten ikasleen garapen proiektua babestu eta estimulatzea, inklusibitatea bultzatzen duen testuinguru baten barnean. Autonomia sustatzeko inguru egokia aukeratuz eta komunikazioa eta inguru sozialaren ezagutza ahalbidetzeko, material edo baliabide egokiak bermatuz.

- Ebaluazioa ahalik eta baliogarriagoa izan dadin, material egokiak bilatuko dira eta egokitzapen curricularrak ikasleen beharretara moldatuko dira, arlo espezifiko batzuetan oinarrituz; Maila afektibo-soziala, autonomia pertsonala, psikomotrizitatea eta fisioterapia, komunikazioa eta hizkuntza.

3.4.3. *Proiektuaren egitura eta partaideak.*

2010/2011. Kurtsoan zehar, ikastetxea proiektu honi hasiera eman zion. Aurretik aipaturiko helburuak kontutan harturik, honako ekintzak garatu zituzten:

- *Txakurterapia.* Lakuntzako Mendilur elkarteko arduradunarekin kontaktuan jarri ziren eta hango langileekin eta ikastetxeko ikasleekin batera, lanean hasi ziren.
- *Artzai lanak terapia gisa.* Ardiekiko lotura emozionala sortzeaz gain, ikasleen aldetik parte hartze aktiboa garatzea ahalbidetzen du. Gainera, sektore primarioa ezagutzeko eta bertan esperimintatzeko aukera ematen du. Ikasleak, gaitasun ezberdinak landuko dituzte bertan, hauen artean autonomia daukagu. Honako hau landuz gero, ikasleek beren buruarekiko autokonfiantza eta autokontzeptua garatzeko aukera izango dute, komunikazio gaitasunekin batera.
- *Garapen artistiko eta plastikoa.* Zentroan bertan gaitasun artistikoak garatzerako orduan, ikasleei motibagarria egiten zaien ekintza edo eta pertsona batekin jarduera elkarlotzea eskatzen zaie, kompetentzia sortzaileen garapena ahalik eta hoberen sustatzeko. Adibidez: Imajina dezagun gaurko jarduera, koadro bat margotzea dela. Ikasleei koadroa margotzea eskatuko zaie eta aldi berean, norbaiti oparitzeko izango dela esaten diegu, eskerrak emateko. Ikasleek koadroa oparituko dioten pertsona horrekiko, lotura emozionala sortzen dute eta ahalik eta interes handienarekin, koadroa txukun txukuna utziko dute.
- *Eskolako irratiko sesioetan parte hartzea.* Ikasleak eskolan dauden baliabide guztietan parte hartze aktiboa garatzeko helburuarekin burutuko da. Beren erreferentzia taldearekin eta tutorearekin, eskolako irratian parte hartuko dute, beti ere gaitasunak eta erritmoak kontutan harturik. Aurreko puntuan bezala,

irradi saio hauetan adibidez, larunbat goizetan Lakuntzan burututako lanen inguruan mintzatu daitezke, eskolako beste ikasleei informazioa igorri.

- *Hezkuntza Laguntza Unitatearen bloga*. Errekurtso edo eta baliabide hau, blog bat martxan jartzeko helburuarekin bideratzen hasi dira. Honen bitartez ikasleek alde batetik, burutzen dituzten ekintzak plasmatzeko aukera izango dute. Bestetik, ezgaitasuna duten ikasleei blog bat sortzeko aukera ematean oinarritzen da, honek dakartzan informazioarekin edo eta lanarekin batera; zer da, zertarako balio du, nola erabiltzen dira, nola sortu dezakegu bat eta abar.

Modu honetan, beren ikaskideak teknologia berriak manipulatzeko dituzten aukera berdinak ahalbidetzen zaizkie. Azkenik aipatzekoa da, blogaren bitartez sarean ibiltzen diren beste pertsoneri eskolan eta animaliekin burututako ekintza ezberdinen inguruan informazioa helarazteko aukera ematen duela, pertsona batzuk besteongandik aberastuz.

3.4.4. Metodologia:

Ikasleen aldetik jasotako inplikazioari eta motibazioari esker, maila curricularreko gaitasun eta kompetentzia ezberdinak garatzeko aukera ahalbidetzen da, ikasleen garapen integrala bultzatuz. Ikastetxean, talde malgutasunarekin lan egiten dute, behar bereziak dituzten ikasleak beren erreferentzia taldean integrazteko helburuan oinarrituz.

Proiektuan zehar langile ez profesionalekin kontaktzen dute, hala nola; zaintzaileak. Ezgaitasunak dituzten ikasleekin pedagogia terapeutikoko irakaslea, entzumen eta hizkuntza irakaslea eta zaintzaileak elkarlanean aritzen dira, hezkuntza helburu berdina jarraituz. Modu honetan, irakasle bakoitzak ikaslearekin dagokion lana burutzen du, ikaskuntza erritmoa galdu gabe. Talde lan horretan parte hartzen duten irakasleak, haien artean oso ondo komunikatuak daude eta guzti horrek ulerkortasuna eta helburuen edo metodologiaren jarraipena suposatzen du, ikaslearen garapena eta gaitasunak aberastuz.

3.4.5. Ebaluazioa:

Ebaluazioa ikaslearen garapenaren prozesuan parte hartzen duten ezaugarrien balorazioa burutzeko baliabidea da. Prozesu honen barnean honako etapa hauek definitu daitezke; lehenik eta behin, behar bereziak dituen ikaslearen beharren detekzioa egiten da eta geroago helburuak formulatzen dira. Hortik aurrera ekintzak edo proposamenak planteatzen dira eta azkenik burututako ekintzen ebaluaketa egiten da, beharrezkoa ikusiz gero, hurrengo urterako hobekuntzak planteatuz.

Aurreko paragrafoari lotuta, prozesu honetan planteatzen den ebaluazioa jarraia da, alegia, helburu batzuk epe motz batean ebaluatzen dira eta beste batzuk berriz epe luzean. Aurreko puntuan, metodologian hain zuzen ere, perfil bereziko ikasleekin; zaintzaileak, pedagogia terapeutikoko irakaslea eta entzumen eta hizkuntza irakaslea taldean lan egiten dutela aipatu dugu. Hortik abiatuta, ikasle hauen inguruko hausnarketak edo eta gogoetak haien artean konpartitzen dituzte. Informazio elkar trukaketa hau bileren bitartez burutzen da. Hilabetean zehar zenbait bilera ezberdinak antolatzen dituzte, ikasleen behar eta garapenen inguruan mintzatzeko, ebaluazioa burutzeko.

Izan ere, hiru langile hauetaz aparte ikaslearen erreferentziako taldearen tutorea baita ere elkartzen da haiekin, berak egunean zehar gelan aurkitzen dituen oztopo edo eta zalantzen inguruan mintzatzeko, hausnartzeko.

4. MENDILUR LAGUN TALDEA

Aurreko puntuetan esan bezala Erreniega Ikastetxea 2010. urtean Mendilur elkartearekin lanean hasi zen gaur egun arte. Hilabetean bitan elkarteko arduradunak Hiru izeneko txakurra eskolara ekartzen du ikasleekin egotera. Txakur hau txikitatik behar bereziko pertsonekin lan egitera hezita edo trebatua dago, honen ondorioz ez dago inolako eragozpenik eskolara ekartzeko. Gainera honen bitartez, eskolak inklusibitatea sustatzen du, behar bereziak dituzten ikasleak beren egunerokotasuneko testuinguru ezagun batean Lakuntzako animaliekin egoteko aukera daukatelako. Egonaldi hauen bitartez ikasleari beren gelakideekin edo eta lagunekin esperientziak eta emozioak konpartitzeko aukera ahalbidetzen zaio, testuinguru horren partaide aktiboak bilakatuz.

Duela bi urte, pedagogia terapeutikoko irakaslea eta eskolako zuzendari ordea Mendilur elkartean boluntario lanak egiten hasi ziren. Pedagogia Terapeutikoko irakaslearen kasuan, larunbat arratsaldetan eskolatik joaten diren ikasleekin han egoten da. Egoera horrek ikasleak gehiago ezagutzera laguntzen dio, eskolan eta Lakuntzan daukaten jarrera guztiz ezberdina baita. Zuzendari ordearen kasuan berriz, idazkari lanak burutzen ditu, elkarteko dokumentazioa eta idatzi guztiak osatuz. Puntu honen bitartez, Erreniega Ikastetxeko ikasleek Mendilur lagun taldean urte hauetan zehar izandako prozesua eta emandako garapena azalduko dut. Horretarako 2 kasu ezberdinetan zentratuko naiz. Alde batetik Down Sindromea duen ikasle bat eta bestetik jokabide erasotzailea inpulsibitatearekin duen beste ikasle bat.

Aldez aurretik aipatzekoa da, Lakuntzan ikasleekin eta animaliekin egiten dituzten lanak, bi motatakoak direla; obedientziazkoak eta zaintzazkoak. Obedientziazkoei dagokienez, animaliak gidatzean oinarritzen da, pautak ematean. Zaintzazko lanak berriz, animaliak zaintzean eta haiekin harreman afektiboak sortzean oinarritzen dira, arlo emozionalean zentratuz. Beraz, haur bakoitzaren beharren arabera, bide bat edo beste aukeratuko da. Ondoren, ebaluazioari begira haurrekin egoten diren profesionalak saio bakoitzaren erregistroa bete beharko dute; saioaren aurrekariak, esku hartze mota eta hausnarketa kontutan harturik. Erregistro orrialdean, esku hartze arlo ezberdinak kontutan hartzen dira; Pertzepzio kognitiboa, motorikoa, hizkuntza eta komunikazioa, sozializazioa eta sormen artistikoa hain zuzen ere. (Ikus eransk.2)

4.1. Down Sindromea

4.1.1. Definizioa, hautematea eta ezaugarriak

Nahaste genetikoa da, 21. Kromosoma – pareko alterazioak hainbat areatako neurona-kopuruaren eta horien funtzionamenduaren murrizketa edo zailtasuna eragiten duena. Honen ondorioz, Down Sindromea arazo fisiko eta psikikoen multzoa da, haurren jaiotzetik garapen osoan zehar garatzen dena.

Ezgaitasun honekin jaiotzen diren pertsona guztiek ez dute, intentsitate bereko patologia eta honekin batera, ez diote garapen prozesu berari jarraitzen. Faktore pertsonalek barrukoek nahiz kanpokoek garunaren garapen maila muga bateraino moldatzen eta aldatzen dute, neuronek duten plastizitatearen arabera.

Down Sindromea antzemateko hiru froga ezberdin daude: Lehenik eta behin amniozentesiaren froga daukagu, haurdunaldiko 14 – 17 aste bitartean egiten dena. Honen bidez alterazio kromosomikoak azaleratzen dituzten fetu gehienak diagnostikatzen dira. Froga honetan, emakumearen sabel aldetik orratz bat sartzen da, abdominal horma zeharkatuz eta likido amniotikoa orratzaren bidez eratorriz. Bigarrenik BVC (Biopsia de Velloidades Corínicas) froga daukagu. Plazentaren zatitxo bat baginatik edo eta abdomenetik eratoritzean datza. Haurdunaldiko 8 – 11 aste bitartean egiten da eta behin ehun zati izanda, analisi kromosomikoa egiten zaio.

Azkenik ekografiaren froga daukagu, malformazioak identifikatzen laguntzen duen froga hain zuzen ere. Down sindromea duten fetuak identifikatu ahal izateko, lepa zur aldeko azalaren lodiera neurtzen da, beso eta hanka hezurren luzerak eta baita buruaren tamaina ere.

Badira zenbait ezaugarri, maila batean zein bestean Down sindromearekin jaio diren pertsona guztiak dituztenak; Down sindromeak berekin dakartzanak dira. Horietako batzuk, aurpegiera adibidez, berezkoak ditu; hipotonia muskularra da bizitzako lehenengo urteetako ezaugarri nabarmenetako bat. Bestetik ere, ezaugarri orokorren artean honako hauek ditugu:

- Imajinazio edo eta irudimen ona dute.
- Egunerokotasuneko arlo ezberdinetan autonomia falta nabaria da.

- Lateralitate zailtasunak antzeman daitezke.
- Denbora kontzeptua ulertzeko zailtasunak dituzte.
- Oroimen eskasa dute.
- Gauzak aurrera eramateko motibazioa behar dute.
- Arreta mantentzeko zailtasunak.
- Kalkulu aritmetikoak egiteko zailtasunak.

4.1.2. Diagnostikoa eta esku-hartzea.

Aurretik esan bezala Down sindromea, haurra jaio aurretik detekta daitekeen ezgaitasuna da. Egoera horri esker familiari, estimulazio goiztiarrarekin lehenbailehen hastera lagunduko zaio, atzerapena bideratzerako helburuarekin. Ikaslearen garapenaren lehendabiziko urteetan, esku hartze goiztiarra arlo ezberdinetan zentratuko da; motrizitate lodian eta finean, harreman sozialetan, hizkuntzan eta autonomiaren garapenean hain zuzen ere.

Honekin batera haurra eskolan hasten denetik, esku hartze goiztiarra jasoko du bertako profesionalen aldetik. Esan beharra dago, lehendabiziko urte hauetan eskolaren xedea, ikaslearen harreman sozial eta autonomiaren garapena izango dela. Bestetik ere, eskolan garatuko den curriculum egokitzapenaren muina, haurrak ikaskuntza funtzionala garatzean zentratuko da, alegia, bizitzan erabilgarriak izango diren ezagutzak bereganatzean, autonomia sustatuz.

Azkenik aipatzekoa da, ikaslearen ikaskuntza erritmoa errespetatuko dela, denbora malgutasuna kontutan hartuz. Irakasleak ikasleen esperientzia arrakastatsuetan oinarrituko dira, ikaskuntza prozesuaren garapena bermatzeko. Landuko diren helburu, eduki eta jarrera ezberdinak, erantzuteko eskaintzen zaizkion aukerekin bat etorriko dira, ikaslearen motibazioa eta interesa, ikasten jarraitzeko nahia bultzatuz.

4.1.3. *Kasua: Down sindromea.*

Lehen Hezkuntzako bosgarren mailan aurkitzen den 12 urteko ikaslea da. Ikasle honek, Down sindrome sakona dauka eta curriculum egokitzapen indibiduala. Irakurketa idazketa prozesuan oraindik nahiko atzeratua dabilenez, bosgarren maila berriz errepikatzea estimatzen ari dira Hezkuntza Laguntza Unitateko irakasleak. Kasu hauetan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara pasatu ahal izateko, haurrak irakurketa idazketa prozesuak menperatu behar dituzte. Beti ere, familiaren iritzia eta ikaslearen beharrak kontutan harturik. Bestetik esan beharra dago, ikaslea duela bi urte Mendilur lagun taldearekin batera eskolak sortutako proiektuan murgilduta dagoela eta hasi zenetik, ikaslearengan antzeman diren aurrerapausoak oso aberatsak izan direla.

- Ezaugarriak:

- *Testuinguru familiarrean:*

Zailtasunaren aurrean familiak jarrera positiboa du eta beren semeari edozein aspektu edo arlotan laguntzeko prest daude. Haurren inguruko erabakiak bi gurasoen artean hartzen dituzte eta etxean berarekin lan egiteko prest daude. Bestalde, ikaslearen osasun, garbitasun eta elikadura ohiturei arreta jartzen diote. Hizkuntzari dagokionez, etxean gurasoek gaztelaniaz mintzatzen dira, ez baitakite euskaraz mintzatzen. Ikaslea D ereduko ikastetxe batean matrikulatua dago eta elebiduna da.

Aisialdian, parkera edo bestelako toki publikoetara askotan joaten dira, testuinguru hurbilean integratu ahal izateko. Honekin batera, liburutegietara askotan joaten dira, ipuin kontalariak asko gustatzen zaizkiolako. Hiru urte zaharragoa den arreba bat dauka eta berarekin harreman ona du. Gainera egoera hau abantaila bat suposatzen du haurarentzat, asko laguntzen baitio harreman sozialen garapenean.

Azkenik esan beharra dago, zenbait egoeretan gurasoek gehiegi babesten dutela, eta horrek haurren autonomia mugatzen duela.

- *Eskolako testuinguruan:*

Tutorearen, pedagogia terapeutikoko irakaslearen eta hizkuntza eta entzumen irakaslearen arteko lana eta koordinazioa oso ona da. Aurretik aipatu bezala, haurrak curriculum egokitzapen indibiduala dauka eta ez du zailtasun handirik helburuetara iristeko. Tutoreak eta pedagogia terapeutikoko irakasleak berarekin erabiltzen dituzten

fitxak eta lanak egokituak daude, haurraren garapena eta erritmoa kontutan harturik. Eskolan jarraitzen den ebaluazio prozesua jarraitua da, ikaslearengan burutzen den behaketan eta berak burututako lanetan oinarrituz. Ikasle hauen kasuan, beren garapenean emandako aurrerapausoak kontutan hartzen dira gehienbat, egokitzapen curricularraren mailara iristearekin batera. Bestetik, aurten berarekin lan egiten duten irakasleon helburua nolabait, irakurketa idazteka prozesuak garatzea dela esan beharra dago.

Esan beharra dago, aurreko urtean zuzenean galdera bat egiten zitzaionean, berengan sentitzen zuen presioaren ondorioz haurra blokeatzen zela. Egoera horretatik irteteko estrategia bat bilatu zuen eta modu honetan, “Señor Pato” irudimenezko laguna sortu zuela. Bere eskuineko eskuarekin sortutako txotxongiloa da. Honen bitartez, ikasleak galdera “Señor Pato”-ri pasatzen dio, aurretik sentitzen zuen presioa eta urduritasuna gaintik kenduz. Ondoren, honek erantzun zuzena ematen du. Beraz, ondoriozta daiteke, berak erantzun badakiela, baina presioaren bitartez urduritzen dela eta blokeatzen dela.

Bestalde, denbora pasa ahala arazoren bat izan duenean edo eta kezka, beldurrak izan dituean, “Señor Pato”-ren bitartez askatu dituela.

Amaitzeko, aipatzekoa da orain eskolan izandako jarrera nahiko orekatua izan dela, baina orain daukan adinarekin, nerabegaroko etapan sartzen hasia da eta gehiengoari bezala, jarrera edo jokabide aldaketa nabaria izan da azken bolada honetan.

▪ Ikaslearen Hezkuntza Premiak:

- Hizkuntza eta ahoskapena garatzeko beharra.
- Gaitasun motorikoa garatzeko beharra.
- Arrazonamenduaren prozesu kognitiboak garatzeko beharra.
- Irakurketa eta idazketa prozesuen garapena sustatzeko beharra.
- Motibazioa: Autokontzeptu positiboa garatzeko beharra, autonomiaren garapena errazteko.
- Arreta mantentzeko gaitasuna garatzeko beharra.
- Indarra eta inpultsibitatea kontrolatzeko beharra.

- Hezkuntza erantzuna:

Hezkuntza erantzuna bilatzerako orduan, Mendilur lagun taldean eta bertan burutzen dituzten eta burutu ditzaketen jardueretan oinarrituko gara. Haurra bertako animaliekin ariketak, jolasak eta ibilaldiak egiten ditu, begiraleen laguntzarekin batera. Testuinguruari dagokionez, saioak mendien arteko belardi handiko lautada batean burutzen dira, natur giro lasaian hain zuzen ere.

Metodologia alternatibo honen bitartez, Down sindromea duen haurren beharrak eta hezkuntza premiak asetzen saiatzen dira. Kasu honetan txakur terapiaren bidez egiten da, dena dela haurra, animalia ezberdinekin kontaktuan aritzen da; ahuntzak, bildotsak, pottokak eta abar. Bestalde aurretik esan bezala, eskolan ikaslearen gaitasunak garatzeko metodologia ezberdinak erabili izan dira baina gehienek huts egin dute, ikaslearengan motibazio eta interes falta sumatzen baitzen. Ondorioz, 2010. Urtean Lakuntza herrialdera txango bat antolatu zuten. Hemendik aurrera, ikaslearengandik izandako onarpena ikusi ondoren, eskolatik Mendilur lagun taldearekin proiektu bat martxan jartzea erabaki zuten. Honen bertaratu izan diren ikasleak, gelako egunerokotasunean aurrerapen handiak eman dituzte.

Geroago ikusiko dugun moduan Down sindromea duen ikasleari, irakurketa eta idazketa gaitasunetan onurak ekarri zizkion eta jokabide erasotzailea daukan ikasleari berriz, gelakideekin harremanatzera eta aspektu afektiboak garatzera lagundu zion. Ezaugarri guzti hauek Lakuntzako herrialdean, burututako jarduera ezberdinen bitartez garatu zituzten Erreniega Ikastetxeko ikasleak. Hortaz, ikasleen hezkuntza premiak kontutan harturik, hona hemen Mendilur lagun taldean buruturako ekintzak:

- *Arreta eta gorputz mugimenduen koordinazioa lantzeko.*

Haurrak txakurrak egiten dituen mugimenduen bitartez arreta trebatzen du. Txakurra eskuinera doanean, haurrak begiradarekin jarraitzen dio eta ezkerrera jotzean berdin. Modu honetan ikusmen koordinazioa eta koordinazio motorikoa aldi berean lantzen ditu, ez baitu animalia begi-bistatik galtzen. Egoera honek ikaslearen eskolako erritmoan eragin handia dauka, klasean idazketa lantzerako orduan adibidez; bere letra zuzen eta txukun egitean zentratzen delako. Honenbestez, arreta mantentzeko eta kontzentratzeko ahalmenak garatzen ari ditu, egoera natural baten bitartez.

Bestalde, arreta mantentzeko eta gorputz mugimenduen koordinazioa lantzeko haurrari jolas bat proposatu zitzaion; Untxi bat kutxa baten barnean sartu behar zuen, bertan letxuga zegoela kontutan harturik. Kutxaren atea soka baten bitartez lotuta zegoen eta haurrak atea ixteko, besoa beherantz jaitsi behar zuen eta atea igotzeko berriz, gora. Begiraleak, untxiak askatu zituen eta haurrak ahalik eta mugimendu gutxien egin behar zuen untxia ez izutzeko eta kutxan sartu ahal izateko. Modu honetan, haurra motibatzen ari gara eta urduritasuna, inpulsibiltatea, auto-kontrola eta abarreko ezaugarriak aldi berean jolasaren bitartez lantzen ditugu. Gainera, egoera honek arreta eta gorputz mugimenduen koordinazioan onura positiboak dakartza, ikasleak eskolan sortu behar dituen margolanetan adibidez.

- *Hizkuntza eta ahoskapena lantzeko.*

Lehen esan bezala haurrari galdera zuzenean egiten diogunean, oso urduri jartzen da eta blokeatu egiten da. Honen ondorioz, "Señor Pato"-ren bitartez erantzuten du. Horrelako egoerei aurre egiteko, haurra txakurrarekin ibilaldiak egiten ditu, animalia leku batetik bestera gidatuz. Gorputzaren mugimenduen bitartez, elkar ulertzen dute. Haurrak gorputzarekin buruturiko keinuen bitartez animalia gidatzen du eta honi esker, hizkuntza berbala nahiz ez berbala aldi berean lantzen ditu.

Aipatzekoa da haurrak txakurrak gidatzen hasi baino lehen, obediencia saioak burutu behar dituztela. Saio hauetan, animaliekin komunikatzeko hizkuntza ez berbala erakusten diete. Bestalde kontutan hartzekoa da, testuingurua eta egoera guztiz berriak direla haurarentzat, egunero murgiltzen diren ingurutik at baitaude. Horrek haurra motibatzen du, beharrak dituen arlo ezberdinetan lan eginez eta premiak asetuz. Gainera, txakurrarekin sortzen den harremanari esker, haurrak auto-kontzeptu positiboa garatzen du, autonomia garatzen duen bitartean.

- *Gorputzeko mugimenduaren kontrola, indarra eta inpulsibiltatea.*

Down sindromea daukan haurrak, zenbaitetan gorputz mugimenduaren kontrola galtzen du eta indarra kontrolatzen ez duenez, basatia dirudi. Honen ondorioz inpulsibiltate hori kontrolatzen laguntzeko, txakurrarekin ibilaldiak egiten ditu, lasai eta kontu handiarekin. Elkarrekin ibiltzen direnean batak bestearen indarra orekatzen du, modu honetan, haurrak mugimenduak ongi eta zentzuz erabiltzera ikasten du.

Haurrak aurrera joan nahi duenean, ibiltzen jarraitu nahi duenean “paso” esaten dio txakurrari eta puntu batean gelditu nahi denean berriz, “stop”. Jarduera simple honen bitartez, animalien eta pertsonen artean sortzen diren sentimenduak eta laguntasuna, oso aberasgarriak dira haurraren garapen integrala bultzatzeko.

Bestetik ere, haurra eta animalia artean sortzen den harreman afektiboari esker, hizkuntza garatzen da, haurraren animaliarekin komunikatzeko nahia eta interesa sortzen delako. Bestalde, gelako zenbait egoeretan oso burugogor jartzen da eta jarrera horrek bere ikasketa mantsotzen du. Beraz, obedientziako ekintza hauen bitartez, ikasleak ondokoaren iritzia errespetatzera ikasten du. Hau da, txakurrak momentu horretan belarrian azkura baldinba du, haurrak momentu hori errespetatu beharko du, txakurra amaitzerakoan ibiltzen jarraituz.

- *Arrazonamenduaren prozesu kognitiboak.*

Mendilur lagun taldeak animalien artean murgiltzeko ematen dien aukera honen bitartez, haurrak garaiaren arabera ezezagunak diren aspektu ezberdinak ikasteko aukera izango dute, hala nola; bildotsen edo eta ahuntzen jaiotzak ikusteko eta animalien garapena eta zainketa behatzeko aukera. Gainera, prozesu honetan parte hartze aktiboa izaten dute; jaioberriei izena jarritz, janaria emanaz, garbituz eta abar. Egoera honen bitartez jolas sinbolikoa lantzen dute, momentu batez jaioberri horien gurasoak bilakatzen baitira. Orobat, txikiak zirenean beren gurasoek haiekin berdina egin behar izan zutela ulertzen dute, eta animalia artean ze nolako berdintasunak eta ezberdintasunak dauden konparatzeko aukera izango dute. Hortaz, landa eremuak edo eta naturak aukeran ematen dituen baliabideak anitzak dira, horietaz baliatuz ikasleen prozesu kognitiboak garatu ahal izango ditugu.

Egoera hauek, haurraren motibazioa eta interesa pizten dute, garapen kognitiboa eta ezagutza zabaltzarekin batera. Halaber, klasera iristen direnean zerbait berri kontatzeko aukera daukate, taldearen irudia bilakatuz.

- *Gaitasun motorikoak eta gorputz mugimenduen koordinazioa.*

Azken boladan jaiotako ahuntzen artean badago bat oso berezia dena, gorputz osoko ilea beltza dauka eta oinak soilik txuri txuriak. Honen ondorioz, down sindromea daukan haurrak txuri beltz izena jarri zion. Bertako profesionalek haurra erabat galduta ikusten dutenean edo eta haserreturik, zapuztuta egongo balitz bezala antzematen diotenean, txuri beltz harrapatzera jolasten dute. Modu honetan, haurra motibatzen da, desafio edo eta erronka bat izango balitz bezala jokatzeko baitu. Bestalde, gaitasun motorikoak edo eta gorputz mugimenduak garatzen ditu, belardian alde batetik bestera ahuntz txikiaren bila baitabil.

Egoera hauek, haurrak jolas moduan hartzen ditu baina aldi berean, inkontzienteki aspektu ezberdinak garatzera laguntzen diote. Orobat, egunen batean gaizki sentitzen baldinba da, "munduarekin haserreturik" nolabait, ahuntz txikiaren bila doala dio. Momentu hau oso garrantzitsua da, inizatiba propioa garatzen hasi delako. Bestetik inizatibaren aspektua, bere irudierekiko duen auto-kontzeptu positiboarekin eta autonomiaren garapenarekin lotuta doa eta ezaugarri hauek aurrerapen handiak eta aberasgarriak dira bere garapen integralari begira. Auto-kontzeptuaren irudia positiboki garatzean, haurrak bere buruarekiko konfiantza eta segurtasuna sortzen ari dela esan nahi du eta abantaila bat suposatzen du ikaskuntza esanguratsua garatzerako orduan.

Amaitzeko, esan beharra dago, animalien artean murgiltzeko izan duen aukerari esker, ikasle honengan eskolan aurrerapen handiak nabaritu direla. Aurretik aipatutakoetaz aparte, ikasleak gaur egun arbelera begiratu gabe letrak idazteko kapaza da. Egoera hau, arreta garatzearen ondorioztat har dezakegu. Ikaslea askoz kontzentratuagoa dago klasean eta distrakzioa aurreko urteekin konparatuz murriztu egin da. Hala ere, bi urte darama proiektuan murgilduta eta nahiz eta aurrerapenak antzeman, prozesua oso mantsoa da.

4.2. Jokabide erasotzailea, inpultsibitatearekin.

4.2.1 Definizioa eta ezaugarriak.

Intentzionatuak diren eta min fisikoa zein psikologikoa sortu dezaketen jokabide agresiboak dira. Gizakiak hartzen dituen jarrera hauek, unibertsalak dira eta haserrea manifestatzen dute. Gizarteratzeko orduan agresibitatea maila altua izateak, arazoak sor ditzake, honen ondorioz, garrantzitsua da haserrea kanalizatzeko teknikak edo eta estrategia ezberdinak ikastea.

Jokabide agresiboa modu ezberdinen bitartez eskuratu daiteke;

- Modelatua. Imitazioaren bitartez eskuratzen dena.
- Errefortzu positiboa. Agresibitate jarrerarekin jokatzek, ondorio positiboa du. Adibidez; kasketa baten aurrean, gurasoek haurra isiltzeko telebista ikustera bidaltzen badute, kasketaren bitartez errefortzu positiboa etorriko dela ikasiko du. Honen ondorioz, jokabidearen errepikapena sustatzen ari gara.
- Familiaren hezkuntza estiloaren, kulturaren eta testuinguruaren eragina.

Jokabide hauek bi ezaugarriren arabera sailkatu daitezke, hala nola:

- *Aktiboa*: Teoria psikoanalitiko eta etiologikoa defendatzen duten adituen arabera, agresioaren jatorria barne inpultsoetan zentratzen da. Beraz, agresibitatea jatorri innatoa duen ezaugarria da eta berarekin jaiotzetik izan dezakegu edo ez.
- *Erreaktiboa*: Ikaskuntza sozialaren teoria defendatzen duten adituek berriz, agresibitatearen jatorria gizabanakoaren testuinguruan oinarritzen dute. Beraz, gizakiok testuinguruarekiko harremanean izaten ditugun desoreka edo eta oztopoen ondorioz, frustrazioa bezalako emozioak sentitzen ditugu. Egoera hauek, agresibitatea erraztu dezakete. Gainera, jokabide agresiboak imitazioa edo eta behaketaren bitartez ikasi daitezkeela defendatzen dute.

Jokabide agresiboak haurtzaroan, eskola porrota iragartzen dute eta helduaroan psikopatologia bilakatu daiteke. Honako hauek dira haurrengan behatu daitezkeen ezaugarri orokorrak:

- Emozioak eta jokabideak kontrolatzeko zailtasuna.
- Frustrazioa bideratzeko teknika falta, azkar minduta sentitu daitezke.
- Arreta mantentzeko zailtasuna.
- Alde handia dago egiazko ahalmenaren eta errendimendu akademikoaren artean.
- Beren erruen erantzukizuna besteengan jartzen dute.
- Kasketa gogorak eta maiztasunarekin hartzen dituzte.
- Jokabide gezurtiak har ditzakete.
- Liskar fisikoei hasiera ematen diete.
- Egiten zaion galdera amaitu aurretik erantzuna ematen dute.

4.2.2. Esku-hartzea:

Jokabide hauen aurrean eskola eta familiaren arteko komunikazioa eta koordinazioa ezinbestekoa da; agresibitatea murrizteko teknika, muga edo eta estrategia ezberdinak aplikatzerako momentuari begira. Eskolan, ebaluaketa metodo ezberdinak martxan jarriko dira; behaketa, erregistroa eta jokabidearen analisi funtzionala bezalakoak hain zuzen ere. Bestetik, agresiboa ez den jokabidearen modelatua egingo da, horretarako lehenik eta behin lortu nahi den jokabidea zehaztuko da. Ondoren, modelaketan aurrera eramango diren pausoak deskribatuko dira, pauso hauek erreforatzeko teknika ezberdinak erabili daitezke, hala nola: kitzikaileak edo eta zirikatzaileak; lortu nahi dugun erantzunaren agerpena, hitzen bitartez (zer gertatu da? Nola konpondu daiteke?), keinuen bitartez (eskuekin edo eta begiradarekin) edo eta ingurunearen bitartez (material konkretu bat erabiliz) bultzatzen baitute.

Azkenik, eman beharreko pauso bakoitzaren tamaina, aplikazio eremua eta hori lortzeko beharrezkoa izango litzatekeen denbora modu indibidualean zehaztu behar dira. Bukatzeko, familiaren kasuan lehen esan bezala, eskolako tutorearekiko

komunikazioa ezinbestekoa da. Honen bidez, eskolan haurrarekin jarraitzen diren estrategiak bultzatu ahalko dituzte etxean, haurrak bere jarrera edo jokabidea bidera dezan. Bestetik ere, ezinbestekoa da aitak edo amak beren seme alaben jokabide ezegoki baten aurrean jarrera berdina hartzea, bestela haurrak ikasiko du norekin egin ditzakeen gauza batzuk edo beste.

4.2.3. Kasua: Jokabide erasotzailea inpultsibitatearekin.

Lehen Hezkuntzako seigarren mailan aurkitzen den 12 urteko ikaslea da. Ikasle honek, jokabide agresiboak dauzka eta askotan oso inpultsiboa da. Curriculum egokitzapen indibiduala egingo dauka eta idazketa prozesuan batez ere bere adinkideekin konparatuz, oraindik nahiko atzeratua dabil. Ikasle honen kasuan, inork ez zuen berarekin kanpaldi batetara joan nahi, kasketa gogorrek maiztasunarekin hartzen baitzituen. Bestetik ere, jokabide desegokiak askotan ematen ziren eta bere gelakideekiko harremana oso desatsegina zen, beste haurrek beldurra baitzioten. Duela hiru urte Mendilur lagun taldean integratu zen eta eskolarekin koordinaketan proiektu bat martxan jarri zuten, ikaslearen jokabidea edo jarrera aldatzeko nahian.

- Ezaugarriak.

- Testuinguru familiarrean:

Testuinguru familiarrari dagokionez, haurrak bere bizitzako urteetan izandako egoera nahiko desegituratua izan da, jaio zenean amak adopzioan eman zuelako. Orduz geroztik hiru familia ezberdinetan egon da. Gaur egun hirugarren familia honekin bizi da, izan ere, ikaslearen jarrera edo jokabidea erasotzailea izaten jarraitzen du. Barne emozioak bideratzeko zailtasunak ditu eta horrek agresibitatearen bitartez sentimendu ezberdinak azaleratzea eragiten dio. Gainera familiak, 10 urteko seme bat dauka eta anai handiak jokabide desegokiaren bitartez gurasoen aldetik arreta osoa eskuratzen duela ikusten duenez, imitazioari ekin dio. Ondorioz azken bolada honetan gurasoak kezkatzen hasi dira, etxean bizi duten egoera modu batean edo bestean bideratzeko behararekin. Gurasoak, haurra eskolatik ateratzerakoan parkera edo bestelako toki publikoetara joatearen beldur dira, gehienetan hartzen duen jokabide edo jarrerarengatik. Izan ere, zailtasunaren aurrean familiak jarrera positiboa dauka eta beren semeari laguntzeko prest daude.

Honen harira, familiak ez daki zehazki zein den haurraren adina ezta ze ikastetxetan ikasi duen haiekin egon aurretik. Haurrak ezer gutxi daki baita ere, batzuetan aurreko ikastetxearen inguruan mintzatzen da eta Sarrigurenen zegoela esaten du. Honen ondorioz, Zizurko Ikastetxe Publikoan ikasketak hasi zituenean, bere adina estimatu behar izan zuten maila batetan edo bestean sartzeko.

Familia honen egoera sozio – ekonomikoa ona da, bi gurasoak lanean daudelako. Hala ere duela hiru urte, aitaren fabrika lekuz aldatu zuten eta herriz aldatu behar izan ziren. Momentu horretan, bi anaiak herrian zituzten lagunekiko kontaktua edo eta harremana galdu zuten. Eskerrak, ikastetxez behintzat aldatu ez zirela eta horrek asko lagundu ziela egoera bideratzera.

Honetaz aparte aipatzekoa da, etxeko hizkuntza gaztelania dela eta gurasoak euskaraz mintzatzen ez dakitela. Izan ere, haurrak dioenaren arabera, beste familiek D ereduan matrikulatzeko erabakia hartu zuten, ondorioz gaur egun eredu honetan jarraitzen du.

▪ *Eskolako testuinguruan:*

Kasu honetan, tutorearen eta pedagogia terapeutikoko irakaslearen arteko lana eta koordinazioa ezinbestekoa da; bai ikasleari mugak jartzerako orduan, bai metodologia edo eta estrategia ezberdinak berarekin martxan jartzerako orduan eta abar. Hasiera batean ikasleak ez zuen pedagogia terapeutikoko irakaslearekin klasetik atera nahi, besteok etiketa bat jartzearen beldurrez. Beraz, egoera hori aztertuta, pedagogia terapeutikoko irakasleak astean zehar ordu batzuetan klasera sartzea erabaki zuen. Hasiera batean, ikasleak ez zion ezta begiratzen ere eta irakaslea beste hurrekin egoten zen; galderak eginez, egindako lanak behatuz eta abar. Modu honetan, egunak pasa ahala haurraren jarrera aldatzen hasi zen eta egun batean, bere tutoreari pedagogia terapeutikoko irakaslearekin zihoala esan zion. Orduz geroztik, asteko zenbait egunetan klasetik ateratzen da.

Amaitzeko, aurretik esan bezala, haurrak curriculum egokitzapen indibiduala egina dauka, baina ez du zailtasun handirik helburuetara iristeko. Hala ere, arazorik handiena bere jarrera edo eta jokabidea izaten jarraitzen du, barne emozioak azalertzeko agresibitatea erabiltzen baitu. Eskolan jarraitzen den ebaluazio prozesua jarraia da.

Kasu honetan, nahiz eta arlo batzuetan nota onak atera, ikaslearen jarrerak eragin handia dauka amaierako emaitzan.

- Ikaslearen Hezkuntza Premiak:
 - Besteon hitza errespetatzen ikasteko beharra.
 - Emozioak eta frustrazioa bideratzen ikasteko beharra.
 - Bere jokabidea autokontrolatzen ikasteko beharra.
 - Arreta mantentzeko gaitasuna garatzeko beharra.
 - Koordinazio gaitasunak garatzeko beharra
 - Harreman sozialak eta afektibitatea garatzeko beharra.

- Hezkuntza erantzuna:

Aurretik aipatu bezala, haurrak Mendilur lagun taldearekin batera burutzen dituen ekintzetan oinarrituko gara hezkuntza erantzuna bilatzerako orduan. Ikasleak bertako animaliekin ariketak, jolasak eta ibilaldiak egiten ditu, begiraleen laguntzarekin batera. Horren haritik Down sindromea duen ikaslea, Lakuntzako herrialdera hurbiltzen denean txakurrekin gehienbat harremanatzen dela esan dugu. Oraingo honetan berriz, ardiekin harremanatzen da batik bat. Azkenean bi kasuetan agertzen diren ikasleen hezkuntza premiak ezberdinak dira eta hezkuntza erantzuna desberdina izango da baita ere. Jokabide erasotzailea duen haurrak, barne emozioak kanpora ateratzeko estrategia edo eta teknika ezberdinak garatu behar ditu eta ondoren aztertuko dugun bezala, ardien bitartez barne sentimenduak askatzen ditu. Bestalde, harreman sozialak garatzeko laguntza behar du, bere jokabideak aspektu honetan muga asko sorrarazi dizkiolako bai eskolan eta baita bizi den herrialdean ere. Honako hauek dira ikaslearen hezkuntza premiak sustatzeko Mendilur lagun taldearekin eskolak burututako proiektuan zehar garatutako ekintzak:

- Emozioak eta frustrazioa kanporatzeko beharra.

Haur honen kasuan bai eskolan eta baita etxean ere, bere izaerarekiko eman nahi duen irudia tipo harro, serio eta indartsu batena izan da. Lakuntza herrialdera hurbildu zen lehendabiziko egunean, pedagogia terapeutikoko irakaslearen esanetan “esperientzia txarra bizi zuen, ardiak hurbiltzen zitzaizkionean, hauengandik korrika ihes egiten

baitzuen, beldur ikaragarriarekin". Hortaz, artaldeari esker haurrak bere emozioak, beldurrak, haserrea eta abarreko sentimenduak kanporatzen zituela behatzerakoan, ardiekin lan egitera ekin zioten. Hala ere, ardiekin lan egiteaz aparte beste animalia ezberdinekin ekintzak burutzen ditu; bildotsak, ahuntzak, oiloak, untxiak, txakurrak eta abar. Egunak pasa ahala, berenganako konfiantza eta segurtasuna lortzen joan da eta gaur egun artalde oso bat txakur batekin mugitzeko gai da. Ildo beretik, txapelketa ezberdinetan parte hartu du, ardiak Lakuntzatik Aralarrera gidatuz.

Bestetik aurreko paragrafoan ikusten den bezala, ikasle honek dituen hezkuntza premiak edo beharrak, down sindromea zuen haurrarekin konparatuz guztiz ezberdinak dira, alegia, kasu honetan ekintzak harreman sozialetan eta jokabide desegokietan oinarritzen direlako. Horregatik berarekin zainketazko ekintzak egingo dituzte gehienbat, obediencia saioak murriztuz. Beraz, ekintza ezberdinen bitartez barne emozioak kontrolatzera lagunduko diote ikasleari; beldurrak, urduritasunak, haserrea eta abarreko sentimenduak sektore primarioetan egunerokotasunen burutu beharreko jardueren bidez.

Lehenik eta behin inpultsibitatea kontrolatzera laguntzen diote. Adibidez; Oiloak arrautzak errutu ondoren, haurrari bizpahiru arrautza hartzera bidaltzen diote. Ondoren jasotakoak etxera afaltzeko eraman ahal izango ditu. Ekintza honen bitartez, haurrak motrizitate fina eta lodia, mugimendua eta indarra lantzen ditu. Bestalde, arreta eskatzen duen ekintza bat denez, haurrak ez du batere hitz egiten eta burutu beharrekoan kontzentratua dago, arrautza lurrera ez erortzeko. Ekintza honi esker haurrak eskolan bere idazketa hobetzen hasi da; letren tamaina, ordena, esaldien norabidea eta abar. Idazlanak txukun eta poliki egitean arreta zentratzen baitu.

Bigarrenik, frustrazioa edo eta haserrea bezalako barne emozioak kanporatzeko, honako ekintzak burutzen ditu; Alde batetik, begirale baten laguntzarekin egurrezko sarde bat hartu eta animalientzat belarra pilatzera joaten da. Jarduera honen bidez, baserrian egin behar den lan bat burutzen ari da, ezagutza kognitiboak orokorrean garatuz. Gainera, inkontzienteki bere frustrazioa eta haserrea gorputz mugimendu eta aktibitatearen bitartez ateratzen ditu. Horrela bada, ikaslearen parte hartze aktiboa eta inplikazioa eskatzen duten ekintzei esker, haurra fisikoki nekatzen da eta geroago lasaiago bueltatzen da jarduera berriak egitera.

Hirugarrenik aurreko paragrafoetan esandakoaren harira, aztertutako bi kasuak guztiz ezberdinak dira, ikasleek behar ezberdinak dituztelako. Honako jardura hau bi ikasleek burutzen dute baina helburu ezberdinarekin. Adibidez; jokabide agresiboa duen ikaslearen kasuan, sentimenduak azaleratzeko orduan, aurretik aipaturiko txuri beltz ahuntza harrapatzea eskatzen diote. Bera oso azkarra eta indartsua dela dio, korrika egiten hoberena. Ondorioz, ahuntza harrapatza bidaltzen dute, ekintza zaila eta ia lortu ezina. Haurra korrika egiten dagoen bitartean emozio edo sentimendu ezberdinak azaleratzen ditu frustrazioarekin batera, hala nola; motibazioa, interesa, beldurra, urduritasuna eta abar. Hortaz, berak nahi duen momentuan gauza guztiak lortu ezin dituela ikustean, frustrazioa agertzen da eta ikasleak sentimendu hau onartzen amaituko du. Honi esker, sentimenduak eta emozioak bideratzeko estrategiak garatzen lagunduko diogu, geroago eguneroko bizitzan murgiltzen den testuinguru ezberdinetan aplikatu dituzan. Down sindromea duen haurraren kasuan aldiz, ahuntza harrapatza bidaltzen dutenean, gorputz mugimendu eta koordinazioa, lantzeko helburuarekin egiten da.

Egoera hauen bitartez, haurrak frustrazioa onartzera eta bideratzera ikasten du, agresibitatea alde batera utziz. Honekin batera, bere gelakideekiko harremanak hobetu ditu, ikasleak talde lanean lan egiten eta parte hartzen egiten ikasten hasi delako. Askotan ezin da egin berak nahi duena, talde batean dagoelako eta bestean iritziak ere errespetatu behar direlako. Egoera hauen aurrean bere jokabide agresiboa bideratzen hasi da, lasaituz. Bestetik ere, Lakuntzan burutako ekintzak haurra positiboki motibatzen dute, desfioztat hartzen dituelako.

- Jokabidea autokontrolatzeko eta harreman sozialak garatzeko.

Artalde osoa txakur batekin mugitzeko, haurrak txakurrari eman behar dizkion mandatuak zuzenak izan behar dira, txakurrarengan konfiantza osoa jarritz. Kasu honetan, haurra haserre bizian dagoenean, paperak galtzen dituen txakurrari oihu egiterakoan honek ez dio batere kasurik egiten. Bertako profesionalek momentu horietan txakurra burutik jota dagoela esaten diote, nahiz eta haurraren egoera emozionalaren ondorioa izan. Hala ere, eskolako pedagogia terapeutikoko irakasleak dio, haurrak aski eta sobera dakiela, bere autoestima egoeraren desorekaren ondorioa dela. Maila emozionalean desoreka handiak baititu.

lido beretik, ikaslea blokeatua dagoela ikustean, artaldetik gero eta urrunago joatea esaten diote, ondorioz oihua gero eta sakonagoa izan beharko du, barneko haserrea eta frustrazioa azaleratuz. Horrelako egoerak oso ongi etortzen zaizkio haurrari, emozio desegokiak bideratzen eta autokontrolatzen ikasten duelako.

Eskolako egunerokotasunari begira, ikasleak horrelako emozioak sentitzen dituenean, gaur egun nolabait esanda, emozio hauek auto kontrolatzeko gaitasuna dauka garatu du. Dena dela, aldaketa hauek prozesu mantsoak dira eta denbora behar dute pixkanaka bermatzen joateko. Bi kasu ezberdin hauetan ikasleen aurrerapenak, onuragarriak eta aberasgarriak izan direla esan dezakegu. Bestetik, haurrak paperak galtzen dituenean eskolan adibidez irakasleak pasabidera aterako luke, bertan aurretik egindakoaren inguruan hausnartzeko eta pentsarazteko helburuarekin. Mendilurren ostera, larretan ibiltzera edo eta egurra moztera joatea proposatzen diote, animalien zainketaren barne dauden elementuak baitira. Gainera, bide batez emozioak kontrolatzen ditu eta aldi berean barnean daukan amorrua askatzen du. Ekintza hauek azkenean egin beharreko lanak dira, errealitatean abereekin baserrietan ibiltzen diren langileen lana baita. Ikasleek lan horietan murgiltzeko aukera izateak eta hauen bitartez beren gaitasunak eta ahalmenak garatzea oso aberasgarria da, beren ezagutzak zabaltzen ditugularik.

Bestalde artaldeak haurra ahul sentitzerakoan, bere inguruan jartzen dira haurra babesteko helburuarekin, erdiko puntuan jarriz. Momentu hauetan, haurra animalia taldean babesten da, bertako kide eta partaide aktiboa sentituz. Egoera hauetan, profesionalek animalien artilea ukitzera animatzen diote, ardiak jetzi, janaria eman eta abar. Ekintza hauen bitartez haurrari harreman afektibo eta sozialetan asko laguntzen diote, lagunekiko errespetua eta laguntza, babesa edo eta enpatia bezalako sentimenduak, aspektuak garatuz. Eskolan abantaila handiak sorrarazi dizkio, gelakideen artean harremanatzerako orduan baitik bat.

- Arreta mantentzeko eta koordinazioa garatzeko.

Jokabide erasotzaileak dituen haurrak Lakuntza herrialdera hurbiltzen den bakoitzean txakurrekin ariketak, jolasak eta ibilaldiak egiten ditu,. Honen bidez, arreta eta koordinazioa lantzen ditu, txakurrak burutzen dituen mugimenduak begi bistatik kendu gabe, behatzen baititu. Artaldearekin ibilaldiak egiten dituenean berdina gertatzen

zaio, azkenean haurrak txakurrari ematen dizkion jarraibideei esker, honek artaldea gidatzen du. Beraz, txakurraren mugimenduei arreta prestatu behar die, artaldea ez bereizteko eta ardiak mendian zehar ez galtzeko. Honi esker eskolan izandako hobekuntzak arreta eta kontzentrazioa arloei begira ezin hobetoagoak izan dira. Klasean ipuin bat ozenki irakurtzen ari direnean, ipuinean zehar gertatzen ari dena kontatzeko gaitasuna dauka, Mendilurren egon aurretik berriz, erraz distraitzen zen eta gehienetan ezin zituen ipuinean agerturiko protagonistak izendatu.

Laburbilduz, ekintza hauei esker, gaur egun ikasleak eskolan eta etxean duen jarrera kontrolatzeko gaitasuna dauka, auto-kontrolerako estrategia ezberdinak garatu baititu; 5 zenbakia arte poliki eta lasai kontatzea eta ondoren ondoan daukan pertsonarekin hitz egitea, beste pertsona entzutea eta amaitu ondoren bere iritzia adieraztea, egoeratik aldentzea eta hobe sentitzen denean itzultzea eta abar. Nahiz eta ikaslearen prozesua mantsoa izan, erantzuna ezin hobetoagoa da. Hortaz, animalien artean haurrak bizi dituen laguntasun sentimenduei esker, bere gelakideekin harremanatzerako orduan zituen zailtasunak murriztu egin dira eta pertsonetikiko afektibitate sentimenduak plazarazten ditu. Honekin batera aipatzekoa da, sormena lantzeko oso baliogarriak egiten ari zaizkiola bertan ikasten eta bizitzen ari dituen esperientzia ezberdinak; ahuntzen jaiotzak, txakur baten bitartez artalde oso bat gidatu, animaliak elikatu eta abar. Esperientzia hauek haurraren ezagutza eta sormena, irudimena aberasten dute geroago, eskolako arlo ezberdinetan plasmatur. Gainera, gelako taldearen irudia bilakatu da, astelehenero klasean zerbait berri kontatzeko aukera daukalako, egun horretan gelako protagonista bilakatur.

Era berean ekintza hauei esker, haurrak beregan konfiantza eta segurtasuna eskuratu du. Gainera gero eta motibatuagoa joaten da Lakuntzara eta eguneroko bizitzan era lasaiago batean jokatzeko. Familiarekin oso pozik dago, bere anaia eta gurasoekiko harremanak zaindu ditu eta haienganako konfiantza garatzen hasi da.

ONDORIOAK

Gaur egungo hezkuntza sistemak, inklusibitatearen eta normaltasunaren printzipioak abiapuntutzat hartzen ditu, gizaki guztientzako ikasteko aukera baliokideak bermatuz, esparru guztietako aniztasuna errespetatuz, ulertuz eta babestuz. Modu honetan aniztasunak edo eta inklusibitateak besteak beste, honako ezaugarri hauek hartzen ditu bere baitan; irakasleen inplikazioa, jarrera positiboa, taldekatze heterogeneoa, ikaskuntza kooperatiboa, material eta baliabide ezberdinen erabilera, malgutasuna, denbora, giroa eta ebaluatzeko prozedurak. Guzti hau kontutan harturik, gaur egungo gizartean teorikoki defendatzen den inklusibitatea edo aniztasuna eta berez, errealitatean aurrera eramaten den praktikaren arteko aldearen inguruan mintzatuko naiz.

Lehenik eta behin aipatzekoa da, aniztasunaren trataeraren eta inklusibitatearen inguruan mintzatzeko garenean, ez garela soilik Berariazko Hezkuntza Premiak dituzten ikasleetan zentratzen ari. Aniztasunak, hezkuntza zentro batean dauden ikasle guztiak hartzen baititu bere baitan, ezberdintasun fisikoak edo sozialak, adina, sexua, etnia, kultura edo eta egoera sozioekonomikoa aintzat harturik. Hortaz, eskolako egoerarekiko analisia burutu ondoren, beharrak aztertu eta gero eskolako mugei aurre egiteko, erantzukizunik hoberena eskainiko duten material edo eta baliabideak ebaluatuko dira, eguneroko programazioan txertatzeko aukerarekin.

Halatan, aniztasunaren inguruan mintzatzekoan askotan soilik HPBak dituzten pertsonetan oinarritzen garenez, Navaridas eta Jimenezek honekin lotuta Gaussen kanpaiaren inguruan zera planteatu zuten: Gaussen kanpian, bai mutur batean zein bestean geratzen diren pertsonak alde batera utzita, erdiko zonaldean dagoen pertsona taldea berdina al da? Homogeneoak al dira pertsona horiek? Erabat ados nago bi adituek planteatutakoarekin, egia da gaur egungo gizartean aniztasunaz mintzatzeko garenean, HPBekin lotzen dugula eta ez du zertan horrelakoa izan behar, kontzeptua globala eta orokorra baita. Askotan guk ditugun iritziak besteenak bezalakoak izan daitezke, gainera baditugu antzekoak izatera eragiten dizkiguten nolakotasunak. Hala eta guztiz ere, aldi berean, beste ezaugarri askok gure inguruko pertsonetatik ezberdintzen gaituzte, jardueretarako kompetenteak edo eta inkompetenteak izan gaituzke eta egoera ezberdinen aurrean, mugatuak sentitu

gaitezke baita ere. Ondorioz, aniztasuna pertsona bakoitzaren ezberdintasun indibidualetan zentratzen da.

Bigarrenik hezkuntza sistemari dagokionez, eskolan ikasleak egokitzapen ezberdinei aurre egin behar diete; alde batetik urtero gela eta gelakide berriak dituzte eta bestetik, irakasle berria daukatenez honen arabera; arau, prozedura edo eta metodologia ezberdinekin aurkituko dira. Beraz, irakasleak egoera hauek kontutan hartu beharko ditu, ikasleen garapen mailan negatiboki zein positiboki eragina izan dezaketelako. Aldaketa hauek ikasleengan antsietatea, beldurra edo eta bakardade sentimenduak eragin ditzakete, ondorioz garrantzitsua da laguntza soziala eta motibazio akademikoa indartzea.

Hortaz, egoera hauetan irakaslearen eta ikaslearen arteko harremana oso garrantzitsua da, ikaslearen motibazio akademikoan positiboki jokatzeko baitu. Gelako giroari dagokionez, ezinbestekoa da lasaia eta atsegina izatea, haurrarendik ahalik eta etekin handiena ateratzeko. Metodologia eta baliabide ezberdinak martxan jarriz, ikasleak seguru sentituko dira, taldeko partaide aktiboak bilakaturik. Honekin batera, eskolan irakasle bezala ikasleen garapen integrala bermatzeko, arlo ezberdinak garatzean oinarritu beharko gara, hala nola; aspektu emozionalak, kognitiboak, koordinazio motorikoa, motrizitate fina eta lodia, aspektu linguistikoak eta abar.

Hirugarrenik aurreko paragrafoari lotuta, Stenberg eta Gardner inteligentzia anizkunen inguruko adituak ditugu. Beren teorietan pertsonak egunerokotasunean aurkitzen dituzten arazoak bideratzeko, garatu beharreko gaitasunak nabarmentzen dituzte. Egoera hauetan gaitasun kognitiboez aparte, bestelako gaitasunak garatzen dituztela (emozioak edo elkar harremanak) defendatuz. Halatan Gardnerrek adibidez, honako ideiak babesten zituen; bizitzan ongi egokitu eta aurrera joateko ez da aski emaitza akademiko onak izatea. Gerta daiteke arlo kognitiboan motorikoan baino azkarragoa izatea, inteligentzia bat bestea baino gehiago garatu delako. Gainera zortzi inteligentzia ezberdin bereiztu zituen (inteligentzia linguistikoa, logiko matematikoa, espaziala, musikala interpersonalak eta abar.) haien artean elkar eragina dutela defendatuz.

Honekin lotuta García honela kritikatzeko du gaur egungo eskolen egoera, aurretik aipaturiko aspektuei begira; *“La escuela, se centra principalmente en dos: La lógico*

matemática y la lingüística e ignora o minimiza el desarrollo de otro tipo de inteligencias.” (García, 2013:203). Eskolako praktketan izandako esperientzian oinarrituz, askotan teoria eta praktika oso aldenduak antzeman ditut bata bestearengandik. Hau da, adibide moduan, oso gutxitan ikusi dut praktketako irakaslea emozioen edo sentimenduen inguruan ikasleekin hitz egiten, zer dira emozioak? Nola kanporatzen ditugu? Guztiak atseginak al dira? Normalean irakasleak gelara iristen dira eta egun horretan eman beharreko materia korrika ematen dute, ikasleen iritziak, ikasteko zailtasunak eta beren denbora errespetatu gabe. Hortaz, García honela dio: *“En cambio, si la escuela reconociera múltiples inteligencias [...] resaltando, sobre todo, la necesidad de adaptar el formato educativo a las diferentes formas de aprendizaje de todos los estudiantes, además de estimular, potencias varios tipos de capacidades en el individuo.”* (Ibid, 2013:203).

Honekin esan nahi dut ikaskuntzan, ikasi beharreko aspektu kognitiboez aparte, ahaztezinak diren bestelako ezaugarriak ditugula, zeinak ikasle bakoitzaren garapenean modu batean edo bestean eragiten dutenak, hala nola; motibazioa, jarrera, interesak eta espektatibak, auto-kontzeptua, gelakideekiko interakzioak, irakasleak eta baliabideak. Honenbestez, aurretik aipaturiko kasuetan bezala, ikasleen motibazioa ezinbestekoa da ikaskuntza positiboa bermatzeko. Ondorioz Erreniega Ikastetxeko irakasleak, kasu honetan HPBak dituzten ikasleekin erabilitako baliabideak eta metodologia beren interesekoa ez zela ikusirik, metodologia alternatiboetara jotzea erabaki zuten. Modu honetan, ikasleak nahiz eta testuinguru ezberdin batean murgildu, beren burua ikasteko gai ikusten dute. Gainera aldi berean, ikasten jarraitzeko zirrarak barne motibazioa sustatzen die.

Laugarrenik, HPBak edo eta ikaskuntza zailtasunak dituzten ikasle hauen kasuan, testuinguru ezberdinetan murgiltzeak, esperientzia berriak bizitzeko aukera eman die, beren ezagutzak garatzen dituzten heinean. Modu honetan astelehenero eskolara iristen direnean, gelako protagonistak edo bilakatzen hasi dira asteburuan ze nolako esperientziak bizi dituzten kontatzerakoan. Egoera honek asko laguntzen die hurrei; alde batetik, bere gelakideekin harremanatzerako eta integratzerako orduan, gelako taldearen irudia lantzen delako eta besterik ordea, auto-kontzeptuaren garapenean. Hots, ikasleak bere gaitasunak, trebetasunak, baloreak eta abarrekoak zein diren

bereiztuko ditu eta egoera honen bidez, autoestimak positiboki jokatu dezake ikasleak bere buruaz pentsatzen ari duena beti ere, positiboki baloratzen baldinba du.

Gainera ikasle hauen kasuan, nahiz eta larunbatetan Lakuntzara hurbildu, hilabetean bitan txakurrekin eskolan egoteko aukera daukatenez, ohiko testuinguru batekin Lakuntzan egindakoa elkarlotzeko aukera daukate. Egoera honek, abantailak eta onurak sorrarazten dizkio ikasleari garapen integralari dagokionez, bere buruarekiko konfiantza eta segurtasunarekin batera.

Bestalde esperientzia honen bidez, elkarrekintza positiboetan zein zailenetan norbere burua, ezagutzera laguntzen die. Hortaz, ikasleek identitatea garatzeko aukera daukate, nor naiz ni? Horregatik oso garrantzitsua da, irakasleen edo eta behatzaileen aldetik behaketa eta dokumentazio guztia orokorrean, ondo erregistratzea, ikaslearen garapena eta beharrak garaiz antzemateko.

Era berean jokabide erasotzaileak dituen ikaslearen kasuan adibidez, hiru urte darama Mendilur elkartearekin lan egiten eta aipatzekoa da, ikasleak urte hauetan zehar bai familian eta baita eskolan ere, eman duen aurrerapausoa ezin hobea izan dela. Gainera, orain berez berak bakarrik maneiatzen du artaldea alde batetik bestera, gradu amaierako CDan sartuta dagoen bideoan ikusi daitekeen bezala. Ikasle honek duela gutxi pedagogia terapeutikoko irakasleari zera esan zion; *gustatuko litzaiokeela beste ikasleei laguntzea, berari bere momentuan lagundu zioten moduan*. Ondorioz ikus dezakegu, nahiz eta arlo ezberdinetan zailtasunekin aurkitu edo eta ikaskuntza arloan adibidez, nahiz eta gelakideak baino maila baxuago batean sentitu, berez guk ditugun gaitasunak garatzen baditugu, kanpotik jasotzen dugun laguntzari esker, ezagutza berriak garatzeko eta transmititzeko gai izango garela.

Bosgarrenik aditu askoren arabera haurrak testuinguru familiarrean murgiltzerakoan jasotzen duten ikaskuntza goiztiarra, garapen kognitiboarekin positiboki harremanatzen da. Hortaz, familiarekin elkarreraginean ematen diren faktore ezberdinak haurraren garapena sustatzeko onuragarriak dira; ikaskuntza estiloa, haurraren inplikazio maila, testuinguruaren antolaketa, baliabideen edo eta materialen aniztasuna, eguneroko estimulazioak, autoestimua, motibazioa eta abar.

Aurretik aztertutako bi kasuetan oinarrituz egia da, jokabide erasotzaileak dituen ikaslearen kasuan, jaiotzetik gaur egun arte izan duen testuinguru familiarraren ibilbidea ez dela guztiz egokiena izan eta horrek eragin handia izan duela haurraren. Alde batetik, ikasleak intseguritate handiak zituen eta horren aurrean barne sentimenduak kanporatzeko modurik errazena berarentzat agresibitatea zen. Bestetik haurra hiru familia ezberdinetan egon da eta horrek ez dio inolako onurarik ekarri, batez ere harreman sozialak garatzeko momentuari dagokionez. Bere gelakideekin harremanatzerako orduan adibidez, zailtasun handiekin aurkitu da, ez zekielako barne amorrua autokontrolatzen eta edozein momentuetan, era erasotzailean jokatzeko zuelako.

Laburbilduz honi dagokionez, Pintrich eta Schunk zera aipatzen dute beren liburuan;

“Las influencias socioculturales de los compañeros, las familias, la cultura y las comunidades juegan un papel importante en el desarrollo de los estudiantes, en el rendimiento y en la motivación. Muchos de esos factores actúan fuera del contexto escolar, aunque tienen un impacto importante en algunos aspectos de aprendizaje y en la motivación en la escuela”.

(Pintrich eta Schunk, 2006:285)

Bestalde animaliekin haurrak oso ongi konektatu du, gainera bidean planteatzen zaizkion erronken aurrean gogor lan egiten du. Orokorrean, zailtasunak edo eta oztopoak sortzen dituzten errokek kuriositatea pizten dutelako, motibazioa eta interesa. Modu honetan ikaskuntza aurrera eramaten da, giro atsegina eta lasai baten bitartez. Gainera ikasleak gaitasun berriak ikasten ditu saiakera errearen bidez.

Down sindromea duen ikaslearen kasuan ordea, bere arazoa ez dago intseguritatearekin lotuta, motibazioarekin baizik. Ikasleak gero eta interes gutxiago jartzen zuen klasean eta horrela ezin zen berarekin lan egin, distraitzeko erraztasun handia zuelako. Gainera arazorik garrantzitsuena garapen linguistikoarekin lotuta zegoen, ikasleak ez baitzituen irakurketa eta idazketa prozesuak barneratzen. Ondorioz txakurren bitartez, lortutako aurrerapausoak handiak izan dira, gainera bat bateko inpulsibitatea kontrolatzen lagundu zaio. Hortaz, idazketan hobekuntzak handiak izan dira, haurrak lanak txukunago egiten dituelako eta lasaitasun handiagorekin.

Seigarrenik duela gutxi, maitzaren 7an hain zuzen ere, Diario de Noticias egunkarian Andres Muñoz Hezkuntza Premia Bereziko ikasleentzako ikastetxeak albiste batean animalia terapian proiektu bat martxan jarri dutela argitaratu zen. Bertan, proiektu honen sortzaileak honela adierazten du bere iritzia; *"El trabajo con animales es una herramienta motivadora y estimuladora para los niños y sus familias, y este tipo de iniciativas son logros muy grandes que se celebran con la mayor de las alegrías"* (San Román, 2013: Diario de Noticias) (Ikus eransk. 3).

Orokorrean laburbilduz, konklusio moduan esango genezake gaur egungo hezkuntza sistema gizarteak errealitatean dauzkan beharretara egokitu behar dela, alegia, gurgildun aulki batean dabilen ikaslea adibidez, eskubide guztiak ditu zentro batetara edo bestera joateko, zentroa bere beharretara egokitu behar delako. Horregatik oso garrantzitsua da gaur egungo hezkuntza sistema aspektu guztietan beharrezkoak diren egokitzapenak egitea, ikasleen beharrak aintzat harturik. Modu honetan, inklusibitatea sustatzen ari garelako ikasle guztion beharrak kontutan harturik, beharrezkoak diren baliabideak eta metodologiak bultzatuz.

Amaitzeko aipatzekoa da lan honen bitartez, hasierako espektatibak bete izan ditudala. Zizurko Erreniega Ikastetxetik ateratzerakoan, animalien terapiaren inguruko metodologia berritzaileak guztiz ezezagunak ziren niretzat eta kuriositateak lan honetan murgildu ninduen. Egia da horrelako terapiak aurrera ateratzeko haietan sinistu behar dela, bestela etekin gutxi atera ahal zaie. Baina praktiketako bi hilabete eta erdi hauetan ikasleek emandako aurrerapenak antzemateko aukera izan dut eta esperientzia horrekin geratzen naiz. Azkenean testuinguru normal eta natural batean murgiltzearekin edo eta esperimintatzearekin batera, ikasleak motibatzen ditugu autoestima bultzatuz eta beren garapen integrala sustatuz. Askotan eskoletan metodologia zorrotzak erabiltzen dira ikasleen ikaskuntza prozesua aurrera ateratzeko. Baina unibertsitateko urte hauetan zehar izandako klaseetan eta praktiketan ere, aztertu dut; metodologia politena, interesgarriena, dibertigarriena edo eta zorrotzena izanik ere, azkenean ikasleak motibatuak eta interesatuak ez baldinba dauden hortik etekin gutxi atera daitekeela.

Ikasleak gelara sartzerakoan goizetik etxera bueltatu arte, sentitzen duten gelako giroa bai gelakideekiko eta baita irakaslearekiko ere atsegina eta lasaia izan behar du, ikaskuntza esanguratsua bermatzeko aukerarekin. HPBak dituzten ikasle hauen kasuan ikusi dugun bezala, nahiz eta milaka metodologia, metodo, jarduera edo eta baliabide ezberdinak erabili ikasleak ez ziren motibatuak sentitzen eta beren jarrera okerrera zihoan, ikasteko gogorik gabe. Aldiz, animaliekin kontaktuan daudenean, elkar harremanean eskolan lantzen dituzten aspektu eta ezaugarri asko landu ahal dituzte baita ere eta ikasleak eroso sentitzen dira, saiakera erroreak egiten dituzte bere ezagutzak antolatuz, esanguratsuak bilakatuz.

Amaitzeko, konklusio moduan esango genuke, lan honen helburua ikasleei hezkuntza aukera egokiak eskaintzea dela, baliabide edo eta metodologia berritzaileen bidez, bakoitzaren ikaskuntza erritmoak errespetatuz.

ERREFERENTZIAK

▪ Bibliografikoak.

- Jiménez, C.; González, M. A. (2011) *Pedagogía diferencial y atención a la diversidad*. Madril: Ramón Areces.
- Navaridas, F. (Coord) (2013). *Procesos y contextos educativos: Nuevas perspectivas para la práctica docente*. Errioxa: Genuève.
- Oliver, M.; Barnes, C. (1998). *Social policy and disabled people: From exclusion to inclusion*. Londres: Longman.
- Ossenbach, G. (Coord) (2011) *Corrientes e instituciones educativas contemporáneas*. Madril: Uned.
- Pintrich, P.R.; Schunk, D.H. (2006) *Motivación en contextos educativos teoría, investigación y aplicaciones*. Madril: Pearson Education S.A.

▪ Arautegia.

- LOE. (2006): Legea 2/2006, Maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa. BOE, 04/05/06.
- LOGSE. (1990): Legea 1/1990, Urriaren 3koa, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorreko Lege Organikoa. BOE, 04/10/90.

▪ Web orrialdeak.

- El Molino Hezkuntza Bereziko Ikastetxea (2010). *Terapia con animales de compañía*. Iruñea: Colegio el Molino. [Erabilgarri (2013/05/24) <http://www.colegioelmolino.com/>]
- Erreniega Ikastetxe Publikoa. (2011). *Txakur Terapia proiektu berezia*. Iruñea: Diario de Noticias. [Erabilgarri (2013/05/22) <http://www.noticiasdenavarra.com>]
- E. San Román (2013). El centro Andrés Muñoz recibe 3.000 euros para una terapia con animales. Iruñea: [Erabilgarri (2013/05/08) <http://www.noticiasdenavarra.com>]
- Mendilur elkarte. (2009). AET Behar berezitako pertsonentzat. Lakuntza: Mendilur elkarte. [Erabilgarri (2013/05/06) <http://www.mendilur.org/>]
- V. Millares (2012). Programas de terapia asistida con animales. Iruñea: Dame la patita. [Erabilgarri (2013/05/19) <http://www.damelapatita.com>]

- Kontsultatutako bibliografia eta web orrialdeak
 - A. Aierbe. (2005). *Intervención psicopedagógica en los trastornos del desarrollo*. Málaga: Aljibe S.A.
 - J. A. Beltrán; V. Bermejo; M. D. Prieto; D. Vence. (1993). *Intervención psicológica*. Madril: PIRAMIDE S.A.
 - R. A. Clemente; C. Hernandez. (1996). *Contextos de desarrollo psicológico y educación*. Málaga: Aljibe S. A.

 - A. Casas; L. Darretxe. (2012) Eskola inklusiboa. Donostia: [Erabilgarri (2013/05/28) <http://www.hikhasi.com>]

 - Erreniega Ikastetxe Publikoa (2012) Eta nik, zergatik ez? Zizurren: [Erabilgarri: (2013/05/30) <http://etanikzergatikez.blogspot.com.es>]

ERANSKINAK

1. Diario de Noticias egunkarian, 2011. Urtean argitaratutako albistea.
2. Mendilur elkartean ikasleen ebaluaziorako betetzen den erregistro.
3. Diario de Noticias egunkarian, 2013. Urtean argitaratutako albistea.
4. Elkarriketa Erreniega Ikastetxeko Pedagogia Terapeutikoko Irakaslearekin.
5. Galdetegia, Mendilur elkartean parte hartzen duten ikasleen gurasoei.
6. CDan sartutako bideoa; Jokabide erasotzailea inpultsibitatearekin duen haurra, artalde oso bat Lakuntzatik Aralarrera gidatuz.

ERANSKIN 1.

Txakur-terapia, proiektu berezia

Erreniega ikastetxean, beste ikastetxeetan bezala Hezkuntza premia espezifikoak dituzten ikasleek ikasten dute. Hauen beharrak, besteenak bezala, anitzak dira. Ikasle hauei arreta ematen diegun profesionalok, erantzunak bilatzeko bide amaigabe horretan, Mendilur elkarteko Alejandro Ibarrarekin topo egin genuen.

Testua eta argazkiak Erreniega Ikast. Publikoa - Viernes, 4 de Febrero de 2011 - Actualizado a las 05:19h



Erreniega Ikastetxeko bi ikasle, Lakuntzako Mendilur elkartean. (Erreniega Ikast. Publikoa)

Lakuntza herrian Mendilur elkarteak txakurrekin lan egiteko proiektu erakargarri eta emankor bat jarri du martxan. Txakurrekin lan egiten da norberaren egoera emozionalean positiboki ekitearren. Txakurra aldez aurretik behar bereziei erantzuteko hezita dago eta oinarrizko aginduak jarraitzen ditu. Horren bitartez arlo fisiologikoetan animu egoerak hobetuz oso positibotzat jotzen den erlazio berezi bat sortzen da. Onurak anitzak dira : fisiko, sozial, psikologiko, kognitibo, emozional eta hezkuntza mailan, hain zuzen ere. Alejandrok bere interesa pertsonala azaldu zuen berarekin batera gure ikasleekin lan egin genezan. Hori aukera paregabea! Ez genuen pasatzen utzi behar. Bisita eguna antolatu genuen gure hiru ikasleekin. Eta Erreniegatik pedagogia terapeutikako bi irakasleak, logopeda eta hiru ikasle joan ginen. Lakuntzara urriaren 7an joan ginen. Lineako autobusa hartu eta abentura hasi genuen, ikasleak eta hirurok emozionaturik. Herrira iritsi eta hamarretakoa hartu eta gero, paseotxo bat emanaz, lekura hurbildu ginen, eta hara non, han zegoen Alejandro, bere lankideak Haizea eta Josu, Hiru, Mendi eta Milka txakurrak, besteak beste. Alejandro maila

Metodologia berritzaileak: Natura eta animaliekiko elkar harremana / Metodologías innovadoras: Interacción con la naturaleza y los animales

pertsonalean erabat murgildu zen Erreniegatik joan ginenekin. Jarduerari hasiera eman bezain pronto, gure ikasleengandik espero ez genituen erreakzioak bizi genituen. Eskolan eman ohi ez dituzten erantzun motak askatu zituzten han: beldurra, ausardia, interesa eta espero ez genuen momentuan. Adibide gisan aipa dezakegu ikasle batek hasiera hasieratik animaliekin izan zuen elkarrekintza sekulakoa izan zela, bai txakur bai ardiekin ere. Hasieran txakurkumeen beldur zen beste ikasle batek, aldiz, bere aurpegiak alaitasuna islatzen zuen bitartean, Hiru izeneko txakurra gidatzeaz gain txakurrez inguratuta bukatu zuen goiza . Eskolara joan aurretik beste sorpresa bat jaso genuen. Egun hartan hiru ikasle hauen arteko joko sinbolikoa agertu zen. Baina hor ez ziren bukatu esperientzia horrek eman beharreko fruituak! Eskolara bueltatu eta Lakuntzan Alejandrearekin bizi izan genuen esperientziak izandako eragina ikusita, interesguneztat har-tzea erabaki genuen apendizai esanguratsuak eta arlo guztietako gaitasunak (irakurketa, idazketa, zenbakikuntza ...) garatzearren. Amaitzeko esan behar dugu proiektu honekin errealitatea toki desberdinetan ikusteko aukera izan dugula, kalidoskopio batean bezalaxe. Erreniega Ikastetxe Publikoan Contrerarekin bat egiten dugu. Berak dioen bezala eskolan norbera ez da berdina ezta desberdina ere. NORBERA NORBERA DA. Eta zuek zer deritzozue?



ERANSKIN 2.

ESKUHARTZE ERREGISTROA/ REGISTRO DE INTERVENCIONES

A.E.T. SAIOAK / SESIONES SEMANALES DE T.A.A:				
DATA/FECHA	AIPATZEKOA (Eguraldia...)/ INCIDENCIAS (Tiempo...)	SAIO AURREKOAK ANTECEDENTES	ESKUHARTZE MOTA TIPO DE INTERVENCIÓN	HAUSNARKETA (Ondorioak, hipotesiak...) COMENTARIOS (Consecuencias, hipótesis...)

ERANSKIN 3.

El centro Andrés Muñoz recibe 3.000 euros para una terapia con animales EMPLEADOS DE CINFA DONAN LA CANTIDAD CON UNA CAMPAÑA DE TEAMING QUE DESCUENTA UN EURO DE SU NÓMINA

D.N. - Martes, 7 de Mayo de 2013 - Actualizado a las 05:04h



Un grupo de niños y niñas del centro, durante una de las terapias. (Foto: Cedida)

PAMPLONA. El Centro de Educación Especial Andrés Muñoz Garde recibirá 3.000 euros recaudados por el personal de la empresa Cinfa a través de la práctica conocida como Teaming. Los fondos irán destinados a un programa de terapia asistida con animales que permite mejorar las facultades cognitivas y cognoscitivas de los menores.

Los empleados de Cinfa iniciaron la tercera recogida con la intención de destinar los fondos obtenidos a través del Teaming a un fin social. Las microdonaciones se han realizado al descontar de forma voluntaria un euro de la nómina mensual de cada trabajador y que va a parar a un fondo común, que la empresa se encarga de doblar. La selección del proyecto, al que han ido a parar los 3.000 euros, corre a cargo de los propios trabajadores, que en esta ocasión han optado por los niños y niñas que reciben tratamientos de estimulación en el centro Andrés Muñoz Garde.

El dinero recaudado irá destinado a fomentar los tratamientos que estimulan la movilidad y la memoria de los menores a través del trato con tres perros: *Naia*, *Vega* y *Maña*, un san bernardo, un golden retriever y una perra mestiza.

Las sesiones comenzaron en abril y se repiten cada semana hasta finales de mayo. Los menores establecen con los animales relaciones de solidaridad, compasión, amor, amistad, lealtad, confianza y responsabilidad, entre otros valores, que les sirven para mejorar en su desarrollo.

La responsable de terapias con animales del centro, Beatriz Blanco, señala que "permiten a los alumnos romper la rutina y activar la motivación para afrontar las dificultades en sus procesos de aprendizaje, además de conocer un amigo que los aceptará con todas sus fortalezas, debilidades, defectos y carencias; un amigo incondicional".

LA PROPUESTA En esta ocasión, Edurne San Román, del Área de Compras de Cinfa, fue la encargada de proponer el nuevo proyecto, ya que su sobrino Daniel sufre síndrome de West y necesita atención constante. El pequeño, gracias a esta iniciativa, ahora puede disfrutar al igual que sus compañeros del trato con los animales para mejorar su desarrollo. "El trabajo con animales es una herramienta motivadora y estimuladora para los niños y sus familias, y este tipo de iniciativas son logros muy grandes que se celebran con la mayor de las alegrías, como la sonrisa de Daniel cuando pasea con Naia", relata San Román.

ERANSKIN 4.

Pedagogia Terapeutikoko irakasleari burututako galdetegia:

1. Nola murgildu zineten proiektu honetan?
2. Zergatik eman zenioten hasiera horrelako proiektuari?
3. Zergatik Mendilur lagun taldea?
4. Zenbatetan behin ekartzen dituzue txakurrak eskolara? Ze ikasle ateratzen dira haiekin egotera?
5. Zer nolako jarduerak burutzen dituzue bertan?

6. Ikasleen jarrera ezberdina al da eskolan adierazten duten jarrerarekin konparatuz?

7. Ikasleen ikaskuntzari dagokionez, zer nolako abantailak antzeman dituzue?

8. Gurasoek parte hartzen dute? Ongi iruditzen zaie?

9. Gurasoak haurrekin geratzen dira edo ez?

10. Zer nolako lotura du horrelako metodologia berritzaileak inklusibitatearen ikuspegitik begiratuz?

ERANSKIN 5.

Gradu bukaerako lanean zehar aztertuko perfil ezberdineko bi ikasleen gurasoei eginiko galdeetgia:

1. Zer iruditu zitzaizuen animali terapiaren inguruko metodologiaren ideia?
2. Eroso sentitu al zarete bertan?
3. Gurasoei bertan ez geratzea eskatzen zaie, zer deritzozue horren inguruan?
4. Ikaslearen gaitasunetan hobekuntzak nabaritu al dituzue?
5. Zuen seme alaben harremanetan edo besteekiko interakzioan aurrerapausoak nabaritu al dituzue?

